

**Iskanbila taldea**
'Txiri', 'Xaala' eta 'Zin' omendu zituzten
KULTURA, 24

**Mondrak 1-0 irabazi zion Pasaia taldeari**
Aloñak eta UDAk berdindu egin zuten Ordizia eta Touringen aurka
KIROLA, 12-13

**'Seussen mundua'**
Sarrera guztiak agortu ziren
KULTURA, 22-23



ASTELEHENEKO
Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko azaroaren 13a • 3. urtea • 122. zenbakia • 0,90 euro

# Debagoieneko lorategiei begiratua: historikoetatik modernoetaraino

*Negu sasoirako itxuraldatzen dabiltza lorategiak asteotan eta eredu ugari aurki daitezke*

Bergaran aza eta kalabazak ipini zituzten, Oñatin txantxiku eta onddoak biribilguneetan eta Arrasaten modu berezian zaintzen dituzte berdeguneak. Lorategi katalogo polita du Debagoienak, eta ez da gutxiestekoa batzuen balio kulturala. Bergaran lau lorategi historiko daude, monumentu izendapena jaso dezaketenak. Bilduma egin dugu ibarreko ondarea ikusteko. Izan ere, udalek gero eta gehiago inbertitzen dute berdeguneetan, baina beti ez dira izaten guztien atseginekoak. Lorezainak, bestalde, kexatu egiten dira oraindik ere herritar askok lorategiak ez dituztelako errespetatzen. Lapurretak eta txakurrek utzitako kakak dira horren erakusle. Uste baino ondare zabalagoa dago ibarrean. 2-3

**BERGARAN HISTORIKOAK**
**XIX. mendeko lau lorategi historiko daude Bergarako erdigunean, Gipuzkoako interesgarrienetakoak**

**ERRESPETU TXIKIA**
**Lorezainak aspertuta daude txakurren kakekin topo egin eta loreen lapurretekin**

**JOERA BERRIAK**
**Ortuko landareak gero eta sarriago ikusten dira; Bergaran kalabazak izan dira azken 'ezustekoa'**

**BIRIBILGUNEAK**
**Ohiko berdeguneetan baino gehiago, biribilgune eta bide ertzetan ikusten dira lorategiak gaur egun**




JOSETXO ARANTZABAL

## KORRIKALARI BATZUEK AZKEN METRORAINO ESTUTU ZUTEN

Lasterketa irabazi zuen Chema Martinez lasai asko helmugaratu zen atzo, behar baino esfortzu handiagoa egin barik. Emakumezkoetan, berriz, Elena Morenok eta Iratxe Aranburuk ez zuten azken metrora arte tregoarik izan. Ezta irudian azaltzen diren korrikalariek ere. Zaleek txalo zaparradarekin eskertu zuten esprint hori. 17-20

## Oñatin jarraituko du asteon Sahara Asteak 5

## Ikastolen Elkarteak etzi jasoko du saria, Londresen 6

## AHTren lanak geratzeko mobilizaziora deitu du Elkarlanak

Aste bukaeran aurrera egin dute AHTren kontrako mobilizazioek Euskal Herrian barrena. Eta Eskoriatzan ere izan da halakorik: egubakoitzean 300 bat lagun batu eta *Orain da garaia AHT gelditzeko* leloa oihukatu zuten, AHT Gelditu! Elkarlana taldeak egindako deiarekin bat eginda. Hilaren 18an, zapatuan, Gasteizen egingo den manifestaziorako dei ere egin zuten. 5



• Movimiento Sin Tierrako kideek hitzaldia egingo dute Bergaran | 8
• Arrasateko kultura etxean bisita gidatuak egiteko epea zabaldu dute | 8

Gatzagako San Milixan jaietan gatza izan da protagonista, eta txokolatea lagun | 4



**HIRIGINTZA** | LORATEGI AUKERA ZABALA ETA ONDARE HISTORIKOA DIRENAK DAUZKAGU IBARREAN

# Azak, txantxikuak eta historia lorategietan

*Asteotan dabiltza lorezainak udazkenerako lorategiak aldatzen; aukera ona begiratua emateko.*

*Loratepi motetan aberastasuna badago ere, zaintzan eta errespetuan oraindik asko dago egiteko*

Jon Berezibar

Berdeguneei gero eta arreta handiagoa ematen diete udaletan. Hirigintza planifikazioetan zein urbanizazio berrietan, lorategiak eraikinen inguruei arnasa emateko baliabideak dira. Oñati sarrerako txantxiku eta onddo deigarriak, Bergarako lorategi historikoak eta Arrasaten biribilgune eta bide bazterretan ikusten diren lorategiak; hirigintza elementu eta aisialdirako gune horiek hartzen duten garrantziaren erakusle dira. Asteotan, gainera, lorategiak negurako itxuraldatzen dabiltza herrietako lorezainak, eta aukera ona da inguruko berdeguneei begiradatxoa egiteko.

Lorategi aukerari dagokienez, bergararrak dira aukera handien dutenak; izan ere, herri erdialdean bertan eta bata bestearengandik nahiko gertu lau berdegune garrantzitsu daude: Usondokoa, Errekaldekoa, Arrizurikoa eta Santa Marinakoa. Lorategi zaharrak dira daukaten zuhaiztiarengatik, eta neurri handikoak dira zuhaitzak.

**HERRIETAKO 'BIRIKAK'**

Arkaitz Tolosa da Bergarako lorezainen burua, eta hark garbi dio "zorte handia" dela "herri erdigunean bertan halako *birikak* izatea, oso leku gutxitan ikusten delako". Hala ere, berdeguneok estimatzeko oraindik ere dagoen kultura txikiaz kexatzen da lorezaina, "sarri jendeak uste duelako loratepiak txakurrak kaka egitera eramateko lekuak besterik ez dela". "Azkeneko hamar urteetan-edo nabari da udalek gero eta garrantzi handiagoa ematen dietela lorategiei; antza, konturatu dira herritarrek estimatzen dituztela eta diru askorik gabe gune politak egin daitezkeela", dio Tolosak. Hain zuzen ere, udal aurrekontuetan ikus daiteke hori; esaterako, Eskoriatzan 116.000 euro da eta Oñatin, 227.933 euro. Arrasaten, berriz, 645.784 eurora heltzen da 2006rako lorategietako aurrekontua berdeguneetan dituen 399.540 metro koadroetarako. Izan ere, Arrasaten Bergaran besteko lorategi historikorik ez badago ere –Monterrongo parkea salbu–, biribilguneetan eta urbanizazio zein bideetan berdegune gehien eta zainduenak dituen herria da.



JOSETXO ARANTZABAL

Usondoko parkea Bergarako lorategi historikoetako bat da.

**Bergaran, erdigunean bertan lau berdegune garrantzitsu daude**

**Urtean birritan aldatzen dituzte lorategiak; orain bat, neguari begira**

**UDAZKENEAN BARAZKIAK**

Urtean birritan ipini ohi dituzte landare berriak: udaberrian eta udazken-neguan. Beraz, sasoi

## • AISIALDIRAKO GUNE IZATEAZ EDO HERRIAK EDERTZEAZ HARATAGO DOAZEN LORATEGIAK



**BIRIBILGUNEAK.**
Gaur egun, lorategiak berdeguneetan baino gehiago hirigintza eta bideei lotuta daude gehienbat. Biribilguneetan daude lorategi gehienak. Eta Arrasateko biribilgune eta urbanizazioak dira horren adibide: Arrasate erdialdean ez dago lorategirik, parkeetan salbu, baina biribilgune eta bide ertzetan makina bat berdegune ikusten dira. Lorategien kokagune berria bihurtzen dabiltza biribilguneak, eta hirigintzako zati dira.



**HERRIAREN IKUR.**
Oñatiko sarreran bertan, lehen biribilgunean bertan daude txantxikuak, ibarreko lorezaintzari dagokionez azkenaldian zeresan handien sortu duen sorkuntza. Askotariko materialak eta landare ezohikoak nahasten dira biribilgune horretan, azken joerei jarraituta. Lehenengo biribilgunean txantxikuak ipini dituzte, eta hurrengoan onddoak daude bisitariei ongietorria egiten. Herriaren ikur bihur daitezke lorategiak.

## IBARREKO LORATEGIAK

berrirako asteotan dabiltza herrietako lorezainak berdeguneak txukuntzen. Baina urtaro honetarako lore aukera ez da hain zabala, eta horregatik, Bergaran moduan, lorezainek bestelako landare motak sartu dituzte: barazkiak. Boni Laskurain kalean kalabazak sartu zituzten –dagoeneko norbaitek apurtu dituenak– eta Irizar jauregian, esaterako, azak sartu dituzte.

Arrasaten ere aurki aldatuko dituzte loratKegiak negurako, eta Amaia Arana udal teknikariak dioenez, oraingoan Arrasaten ere barazkiak ikusiko ditugu herriko hainbat loratKegitan. "Begitik sartu behar zaizkio loratKegiak jendeari", agertzen du Arkaitz Tolosak, eta "alde horretatik polita izaten da koloreekin jolastea; esate baterako, Realak inoiz liga irabazten badu lore txuri-urdinak ipiniko ditugu loratKegietan, edo bestelako koloreekin jolas daiteke".

Horren harira, zeresana piztu dute Oñatin, Zubillagan, auzoko biribilguneetan ipini dituzten txantxiku eta onddoek. Proposamen horrek oso harrera ona izan duela ematen du.

**ERRESPETURIK EZ**

Txantxa eta jolasak alde batera utzita, baina, Bergarako lorezainak nahiko haserre daude herritar batzuekin, loratKegiei dieten errespetu txikiarengatik: "Herritarrek konturatu behar dute loratKegiak ere ondarea direla, baina sarri leku baten loreak faltan eta aldameneko balkoian ikusten ditugu ". Txakurren jabeekin ere ez dago oso pozik Tolosa, "gutxiengo eskakizunak ere ez" dituztelako betetzen askok, eta aurka egiten dietelako.

**Negurako lore aukera ez da zabala, eta barazkiak sartzen hasi dira**

**Oraindik ere txakurren jabe askok ez ei dituzte loratKegiak errespetatzen**



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako Irizar jauregiko albo baten frantziar estiloko loratKegiak daude.

# LoratKegi historikoen ondare garrantzitsua Bergaran

*Haien balio kulturalarengatik benetan preziatuak diren lau berdegune ditu Bergarako herriak*

J. B.

Kultura ondarearen barruan monumentu moduan kontsideratzen dira *loratKegi historiko* deritzenak. Historiadun berdegune baino gehiago dira balio historikoarengatik edota ikuspuntu artistikotik interes publikoa duten guneak, eta arkitektura egitura edo landare konposizio moduan izendatuak dira. 1981 ezkero Unescok loratKegi historikoa arkitektura-konposizio bezala ikusten du eta monumentu trataera ematen diete orduz gero. Orain dela hogei urtetik hona hasi dira mundu mailako instituzioak loratKegi historikoen ondareaz arduratzen; izan ere, Unesco erakundeak dio loratKegi historikoak "guneok sortu eta erabili dituen gizarte eta kulturaren erakusle" direla, 1981ean idatzitako LoratKegi Historikoen Kartan.

LoratKegi historikoetan Gipuzkoako ondarerik garrantzitsuenetakoa Bergarak dauka eta ibarrean Arrasaten ere badago parke historiko bat. Bergarakoak lau dira: Santa Marinakoa, Errekaldekoa, Usondokoa eta Arrizurikoa. LoratKegi gehienak XIX. mendekoak dira eta estilo ingelesa dute; hau da, basoaren itxura imitatzen dutenak. Badago beste bat, loratKegi frantziarra esaten zaiona, eta Irizar jauregian dago, hesiz inguratuta. Arrasaten, berriz, loratKegi historiko bakarra dago, Monterron parkekoa.

**Arkitektura-konposizio moduan definitzen ditu Unesco erakundeak**

**KONTSERBAZIOA**

LoratKegi horiek, interes historikoarengatik edo balio kulturalarengatik, babestuak izan beharko lukete, baina sarri loratKegien ondarea ez da ezagutzen edota administrazioari, loratKegi historiko baino gehiago, berdegune huts kontsideratzea komeni zaio. LoratKegi historikoak legez monumentu dira, nahiz eta horietako asko arriskuan egon. Unescok ezinbestekotzat jotzen du horiek berreskuratzea, "guneak berak jasandako garapen historikoa errespetatuz". LoratKegi historikoak interes botaniko hutsetik haratago ondare kulturaleko lehen mailako monumentu moduan aintzakotzat hartu behar direla dio nazioarteko kultura erakundeak-



J. B.

**IRENE ZENITAGOIA** | LORE-SALTZAILEA

**"Loreak ipini bai, baina ganoraz ureztatu eta sastu behar dira, hazi eta gorritzen ikusteko"**

J. B.

**LoratKegiei nahiko arreta jartzen zaie?**

Ez behar bestekoa. Urbanizazio eta kale berrietan gogoratzen dira berdeguneak ipintzeaz, baina ondoren zaintzan daude gabezia handiak. Gainera, uste dut beti landare mota antzerakoekin ibiltzen direla, eta gaur egun aukera gehiago daude. Elgoibar aldean biribilgune berri batzuk egin dituzte eta horiek benetan ikustekoak iruditzen zaizkit. Material eta forma askotarikoak erabiltzen dituzte: trenbide zatiak, harriak, landare kontraste handia... Oso irudi dotoreak lortu dituzte. Oñatiko txantxikuen biribilgunea izan daiteke loratKegi mota horren eredua.

**Eta zaintzari dagokionez?**

Askotan loratKegiak ipini eta ureztatze sistemaz ahazten dira. Frantzian edo Ingalaterran loratKegiak hazi, gorritu eta zahartu egiten dira, ganoraz ureztatu eta sasten dituztelako. Hemen sartu bai, baina ureztatzen ez dute lanik hartzen. Hala, landareek ez dute aste pare bat ere irauten.

**Nondik hartu beharko litzateke eredua?**

Hendaia edo Miarritzera joatea besterik ez dago. Oso zainduta daude eta originalak dira. Landare motak, ureztapena, askotariko materialak... Horrela loratKegi ederrak lortzen dituzte.



**HISTORIKOAK.**

Ondare historiko garrantzitsu izan daitezke loratKegiak eta parkeak ere. Ibarrean, horri dagokionez, aberatsena Bergara da, lau loratKegi historiko dituela: Santa Marinakoa, Errekaldekoa, Usondokoa eta Arrizurikoa. Gipuzkoa mailan ere Bergarak du ondarerik ikusgarrienetakoa. Udalaren asmoa da loratKegiok antzina zeuden moduan uzteko berreskuratzea, guneok daukaten balio historikoarengatik: ondare kulturala dira.



**ORTU ITXURA MODAN**

Hasieran askok txantxatzat hartu bazituzten ere, Bergaran, adibidez, dagoeneko ohiko bihurtu dira aza, zerbak eta kalabazak loratKegietan. Aurten ere negu sasoirako aza eta kalabazak ipini dituzte. Eta Arrasaten ere joera berriei kasu egin eta loratKegi eta biribilguneetan ortuko landareak ipintzeko asmoa daukate. LoratKegietan ere modak eta joerak daude eta gero eta gehiago zaintzen da itxura herrietan.

**GATZAGA** | GATZEZKO TXOKOLATEA ETA ARTISAU FERIA



A.E.

Eugenio Otsoa gatz museoan gatz gorria egin zuten atzo.

# Gatza izan zen protagonista Gatzagako San Milixan jaian

*Ibarreko jende asko hurreratu zen Gatzagara San Milixan jaia ospatzera; egun bikaina izan zen*

Arantzazu Ezkibel

Gatzagako Eugenio Otsoa gatz museoak dorla berria estreinatu zuen atzo. Udalak museoko dorla egokitzea erabaki zuen, eta, hain zuzen, San Milixanetako jaia aukeratu zuten dorla berria martxan jartzeko.

**GATZ GORRIA**

Orain arte gatza ekoizteko modurik ez zegoen. Hala ere, prozesu guztia erakusten zuten museoan. "Orain, dorla berriarekin, gatza ekoizteko aukera izango dugu", adierazi zigun museoko arduradunak. Atzo, gatz gorria ekoitzi zuten: "Burdin urarekin egiten den gatzak kolore gorria hartzen du. Gaur gatz gorria ekoitzi dugu eta jendeari asko gustatu zaio".

Jende ugari hurbildu zen gatz museora eta arrakasta handia izan zuen dorla berriaren funtzionamenduak.

**GATZEZKO TXOKOLATEA**

Bestalde, Oñatiko Klaxk txokolate elkartekoak arduratu ziren gatzezko bonboiak egiteaz. Haiek ere pilotalekuan jarri zuten txokolate postua. Herritarrek gatz ureko iturritik hartutako uretik gatza jaso zuten etxean eta Klaxk elkartekoek gatz hori erabili zuten txokolatea egiteko. Jakinmin handia piztu zuen gatzezko txokolateak San Milixan jaian. Jendeak gatzezko txokolateak zer-nolako gustua duen jakin nahi zuen eta batek baino gehiagok sorpresa hartu zuen. Hainbat motatako txokolatea egin zuten: zuria, beltza eta almendrazkoa, besteak beste.

Sorginak emakume taldekoak ere lan eta lan eritu ziren taloak egiten. Giroa aproposa zen taloa jateko eta jendeak gogoz hartu zuen txorizo taloa sagardo baxoerdiarekin.

Kultura zinegotzi Jon Sasiain gustura geratu zen jaiak izan zuen erantzunarekin. Aurten gatza izan da jaiaren ardatz eta suak eta txokolateak egin diote lagun egun handian.

## • JENDEA POZIK FERIAKO GIROAREKIN



**BEA ETA GLORIA** |
BERGARA

**"Lehenengo aldia da gatz museora eta feriara etortzen garena"**

"Orain arte gatz museora etorri gabe geunden eta gaur izan da lehenengo aldia museoa bisitatu duguna. Oso polita iruditu zaigu. Berriztatu berri duten dorlan gatza nola egiten den ikasi dugu. Orain, feriara joango gara gatzezko txokolatea dastatzera".



**PURI ETA MARI CARMEN** |
BERGARA

**"Ogia erosteko asmoarekin etorri gara San Milixan feriara"**

"Feriara etortzen garen lehenengo aldia da. Ogia erosteko asmoarekin etorri gara; hala ere, ikusiko dugu zer dagoen, eta zerbait erosiko dugu", esan ziguten Bergaratik hurbildutako bi emakume horiek. Gatz museoan harrapatu genituen, gatza nola egiten den ikusten.



**AMAIA ETA NEREA** |
OÑATI

**"Mendi ibilaldia izan dugu eta orain feriara etorri gara"**

"Aurretik ere izan gara gatz museoan, Ikastolatik etorrita. Gatza nola egiten den ikusi izan dugu, baina feriara gatozen lehenengo aldia da gaurkoa. Mendi ibilaldia izan dugu eta aukera aprobetxatu dugu Gatzagara jaitsi eta San Milixan feria ikusteko".



**IRATI** |
ARETXABALETA

**"Urtero etortzen naiz familiarekin Gatzagako San Milixan feriara"**

"Gatza zelan egiten den ikusten izan gara lehenengo eta gero feriara etorri gara. Aretxabaletakoa naizenez, ez da feriara etortzen naizen lehenengo aldia. Urtero etortzen gara. Oraindik ez dut gatzezko bonboirik probatu, baina gogoz nago nolakoak diren jakiteko".

## • SAN MILIXAN EGUNAK HAINBAT UNE BEREZI IZAN ZITUEN



**BIHURRI AIZKOLARIA.** Ernesto Ezpeleta aizkolari eibartarrak erakustaldia egin zuen Gatzagako San Migel plazan. Hiru metroko enborra moztu zuen aizkolari eibartarrak. Ondoren, motozerra hartu eta irudiak egin zituen. Jendeak gustura jarraitu zuen Bihurriren lana.



**ARTISAU GOZOKIAK.** Pilotalekuan 12 artisau postu jarri zituzten: ehulea, zilarrezko bitxiak eta zeramika, besteak beste. Irudikoak gozokiak saldu zituen. Egia esan, arrakasta handien izan zuen postua izan zen gozokiena. Gatzaren herrian ere gozoa maite dutela erakutsi zuten.



**SORGINAK EMAKUME TALDEA.** Artisauekin batera Sorginak emakume taldeak talo txosna jarri zuen pilotalekuan. Gerturatutakoen barruak berotzeko talo goxoak eta sagardoa eskaini zituzten. Artisauentzat bazkaria egiteaz ere Gatzagako *sorginak* arduratu ziren.




JOSETXO ARANTZABAL

Barikuan 300 bat lagunek egin zuten bat AHT Gelditu! Elkarlana taldearen deialdiarekin.

# AHTren lanak geldiarazteko Gasteizerako dei egin dute

*AHTren kontra aritzea "etorkizunari begira apustua" egitea dela dio AHT Gelditu! Elkarlanak; mobilizaziorako dei egin dute*

M.B.

Aste bukaeran aurrera egin dute AHTren kontrako mobilizazioek Euskal Herrian barrena. Eta Eskoriatzan ere izan da halakorik: egubakoitzean 300 bat lagun batu eta *Orain da garaia AHT gelditzeko* leloa oihukatu zuten, AHT Gelditu! Elkarlana taldeak egindako deiarekin bat eginda.

Taldeko kide Hilario Manzanedok manifestazioaren ondoren salatu zuen "PSOEren Gobernuak eta Gasteizko hirukoak ezarri duten informaziorik eza eta ilunkera erabatekoa dela" eta azpimarratu zuen Sustapen Ministerioak autobidearendako desjabetuta zeuden lurretan hasi dituztela AHT eraikitzeko lanak.

Informaziorik ezari dagokionez, ETBraino iristen dela gehitu zuen Elkarlaneko ordezkariak, haiekiko duten "zentsura informatiboagatik". Eta gehitu zuen horrek erakusten duela "komunikabide publiko eta plurala baino gehiago, Ibarretxeren gobernuaren interes ekonomiko eta partidistaren aparatua dela".

**HILAREN 18AN GASTEIZERA**

Era berean, AHTren aurkako mobilizazioak zabaltzeko eta sendotzeko garaia dela nabarmendu zuen Eskoriatzan AHT Gelditu! Elkarlana taldeko ordezkariak, eta, horrekin batera, datozen egunotan zein hilaren 18an Gasteizen egingo den manifestaziorako dei ere egin zuen.

Elkarlanaren ustez, "ez da berandu obrak geldiarazteko". Horren haritik, AHTren inposaketari herri galdeketa – egin direnak eta egingo direnak– kontrajarri zioten, "galdeketotan garbi agertzen baita euskal gizartean AHTrekiko dagoen desadostasun zabala". Eta azpimarratu zuen "AHTren kontra aritzea etorkizunari begira apustu egitea" dela.

# Sahararen aldeko azken jaiak lagun asko bildu zituen Arrasateko plazan

*Arizmendi ikastolak eta Txantxiku ikastolak Nubi elkartearen laguntzarekin antolatutako jaia izan zen zapatukoa*

Arantzazu Ezkibel

"Oso pozik gaude Sahara Asteak Arrasaten izan duen erantzunarekin", adierazi zigun Nubi elkarteko kide Agurne Juldainek. Izan ere, oso erantzun ona jaso zuen Arizmendi eta Oñatiko Txantxiku ikastolek Nubi elkartearekin elkarlanean antolatu zuten Sahararen aldeko azken jaiak.

**DENDA ETA TABERNA**

*Ikastolatik Saharara* proiektua finantzatzeko helburuarekin, bigarren eskuko liburu azoka, taberna eta haurrentzako pintura tailerrak izan ziren Arrasateko plazan, besteak beste.

Gasteiztik etorritako saharar familia batek tea eta henna tatuajeak egin zituen; nahi zuenak gorputza berotzeko aukera paregabea izan zuen, eguraldia ez zen goxoa izan-eta zapatuan.

**15.000 EURO INGURU**

"Orain arte 15.000 euro batu ditugu. Lortutako diruarekin, ibarretik joango garen 140 pertsonen bidaia finantzatzeaz gainera, Saharan egingo dugun proiektua ere finantzatuko dugu", esan zigun Juldainek. Saharara joandakoan ikusiko dituzte zeintzuk diren behar nagusiak. Hala ere, badakite zeintzuk izango diren egin beharreko lan batzuk: "Eskolak margotu eta ortuak landu behar ditugu".

Bada, Oñatin izango du jarraipena *Ikastolatik Saharara* proiektuak: egubakoitzean, 17:00etan hasita, Oñatiko plazan izango da jai nagusia.



JOSETXO ARANTZABAL

Saharar familia honek tea prestatu zuen.



**TRIKITIA** | TRIKITILARI EGUNAREKIN BATERA, 10. URTEMUGA OSPATU ZUEN ZAPATUAN ARAMAIOKO TRIKITIXA TALDEAK

# Beste hamar urte betetzeko moduko trikitilari harrobia dute Aramaion

*Hogeita hamabi ikasle ditu gaur egun Aramaioko eskolak. Zapatuan, trikitilari gazte zein nagusi batu ziren eta herritarrekin konpartitu zuten urtemuga ospatzeko antolatutako jaia*

M.B.

Ekitaldi asko egon dira aste bukaeran Aramaion: San Melixena jaiak Gantzaga auzoan, antzerki emanaldia eta Farola Eguna barikuan eta Trikitilari Eguna zapatuan. Azken horrek osagarri berezia izan du aurten; izan ere, herriko trikitilari eskolak hamar urte bete ditu, eta hori ere zapatuan ospatu zuten.

Zapatu arratsaldean hasi ziren Trikitilari Eguneko ekitaldiak, Trikitixa Taldekoek egindako kalejirarekin. Horren ondotik, 18:00ak aldera, erromeria egin zuten plazan. Erromeria berezia izan zen, gainera: eskolaren 10. urtemuga ospatzeko Xabier Aranburu eta Rakel Pujana trikitilariak gonbidatu zituzten eta hantxe jardun zuen bikoteak, udaletxeko arkupean, aramaioarren oinak dantzan jartzeko lan handirik gabe.

Erromeriarekin batera, eta Trikitilari Eguneko ohiturari jarraituz, buzkantza eta txorizoa banatu zuten arkupeetan jarritako txosnan. Hala, erromeria batetik, eta txosna bestetik, jende multzo polita batu zen Bizente Goikoetxea plazan. Horrekin batera, azken egunetan saltzen jardundako errifen zenbaki sarituak atera zituzten. Hala, baserri turismoan aste bukaera pasatzeko hiru zenbaki sarituak hauek dira: 4246, 2971 eta 4345.

**HAMAR URTEZ TRIKITIA IRAKASTEN**

Herrian zegoen zaletasunaren haritik sortu zuten duela hamar urte trikiti eskola Aramaion. Hainbat herritarrek trikitia eta soinua ikasteko interesa erakutsi zuten eta Udalak bultzatu egin zuen ekimena. Hain zuzen ere, garai hartan Arrasaten eskolak ematen zituzten Gurutze eta Josune Uribarren hartu zituzten irakasle.

Eskolaren arduradunen esanetan, duela hamar urte ikasleak nagusiagoak baziren ere, gaur egun gazteagoak dira, nolabait trikitia ikastea eskolaz kanpoko jardun bihurtu da-eta.

Gazte edo nagusiago, ikasturte berrian 32 ikaslek dihardute Aramaioko Trikiti Eskolan.

**Erromeriak eta txosnak jende ugari batu zuten Bizente Goikoetxea plazan**

**Baserri turismorako hiru zenbaki sarituak dira: 4246, 2971 eta 4345**



JOSETXO ARANTZABAL

Aranburu eta Pujana trikitilariek eta Txoznak alaitu zuen aramaioarren zapatua.

**• FAROLA EGUNA ERE OSPATU ZUTEN BARIKUAN ARAMAIOARREK**



**NEGURAKO ARGIA.** Guraso Elkarteak bultzatuta, Farola Eguna egin zuten egubakoitzean Aramaioko hainbat guraso eta seme-alabek. Iluntzean izan zen hori, eta, faroltxoak piztuta, eskolatik Andra Marirako bidea egin zuten. Modu horretan, herrian barrena neguan lagunduko dien argia zabaldu nahi izan zuten. Hain zuzen, gure ibarrean Aramaion bakarrik egiten den usadioa da Farola Eguna. Eskolako irakasle batek bultzatu zuen hasieran eta gaur egun Guraso Elkarteak hartu du bizirik mantentzeko ardura.

# Ikastolen Elkarteak etzi jasoko du saria, Londresen

*Teknologia berriak erabiliz ingelesa irakasteko materialarengatik jasoko dute saria, Buckingham-en*

Asteleheneko Goienkaria

Etzi, eguaztena, Londresko English-Speaking Union (ESU) –Erresuma Batuko Ingeles Hiztunen Batasuna– fundazioaren President's Award saria jasoko du Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak. Buckingham jauregira joango dira saria jasotzera, eta Ingalaterrako erreginaren senarrak, Edinburgoko Philip dukeak, emango die; izan ere, hura da ESU fundazioaren lehendakaria.

**SARIA CD-ROM BATENGATIK**

Teknologia berriak erabilita ingelesa irakasteko ikasmaterial onenarengatik jasoko du sari hori. Hain justu, Ikastolen Elkarteko talde multidiziplinarrak ingeleseko ikaskuntzarako sortu, garatu eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak argitaratu duen *Space Search* CD-ROMak jasoko du saria. 9 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta *Welcome Aboard* CD-ROMaren jarraipena da.

**ERRESUMA BATUTIK KANPO, LEHENENGOZ**

Duela hiru urte sortu zuten teknologia berriei zuzendutako President's Award saria. Aurreko bi aldietan Cambridge eta Oxford unibertsitateek eta Macmillan argitaletxeak eroan dute. Hirurak ingelesezko materialak egiten dituzten munduko argitaletxe nagusiak dira. Hori horrela, aurten, lehenengoz, Erresuma Batukoa ez den proiektua saritu dute.

• HERRI MERKATARITZAREN ALDEKO JAIA, BERGARAN



JOSETXO ARANTZABAL

**HERRIKO KOMERTZIOEN GARRANTZIA OINARRI**

Bedelkarrek, herriko dendarien eta ostalarien elkarteak, herriko komertzioaren garrantzia aldarri egiteko jaia egin zuen zapatuan. Bestelako zereginetan ikustera ohituta gaituzten arren, zapatuan pintxo eta edariak banatzen ikusi genituen dendarietako batzuk plazako arkupeetan. Gainera, umeendako hainbat tailer antolatu zituzten, eta baita musika eta margo erakusketa ere. Zapatu goiz grisari kolore alaiagoa eman zioten Bedelkarkoek jaiarekin.

**IKASLEEN NAZIOARTEKO EGUNA** | MANIFESTAZIOA EGINGO DUTE, 19:00AN, SEBERRETIK

# Lanuzte eta manifestazio deiak IAk barikurako

*Euskal ikasleen eskubideak betetzeko eskatu eta hezkuntza agintarien jarrera salatuko dute Arrasaten*

Jon Berezibar

"Euskal ikasleen kartako eskubidean behin eta berriaz urratuak direla (ezin delako euskaraz ikasi ez eta euskal edukirik jaso) eta frantziar zein espainiar agintari eta hezkuntza arduradunek ikasleak objektu huts moduan hartzen dituztela" salatzeko, manifestazioa eta lanuztea egiteko deialdia egin du Ikasle Abertzaleak taldeak azaroaren 17rako, datorren egubakoitzerako.

Ikasleen Nazioarteko Egunaren aldarrikapenen barruan egingo dira ekitaldiok, eta hezkuntza ertainean eta unibertsitatean deitu dituzte lanuzteak, bigarren orduan. Arratsaldean, 19:00etan hasita, manifestazioa egingo dute, Seber Altuben irtenda. Mondragon Unibertsitateko ikasleei eta Bergara, Eibar eta Elgoibarko ikasleei ere egin zieten Arrasateko deialdia eguenean egindako prentsaurrekoan. Hain zuzen, aurten Ikasleen Nazioarteko Eguna herrialdeka antolatu dute eta Gipuzkoako manifestazioak Donostian eta Arrasaten izango dira; eta Gipuzkoa osoko ikasleak mobilizatu nahi dituzte.

Era berean, Mondragon Unibertsitateari dagokionez, eskari zehatzak dauzkate IAkoek. Euskaraz ikasteko eskubidea betetzea nahi dute eta kolektibo gisa jarduteko bideak ere: ikasle kontseilu soziala beste era batera antola dadin ere eskatzen dute. Taldeak, gainera, jai-egun arrotzak salatu eta Bologna Prozesuaren aurkako ekimenekin jarraitzen du.

**DATA HISTORIKOA**

1941a ezkero da azaroaren 17a Ikasleen Nazioarteko Eguna. 1939an Pragako ikasleek nazien okupazioaren aurka egindako altxamenduan eta horren ondoriozko jazarpenean du jatorria aldarrikapen egun horrek; istiluetan ikasle bat hil zuten. Urte bi geroago Londresen egindako ikasleen kongresu baten izendatu zuten eguna.

Hala, gertakarion memoria berreskuratu gura dute Ikasle Abertzaleek, Europan eta munduko beste herrialde batzuetan egingo den moduan.

**Labur**

## Paco Gartzia izango da PSEko alkategaia Arrasaten

Eguenean aurkeztu zuen Alderdi Sozialistak alkategaia maiatzeko hauteskundeetarako: Paco Gartzia; eta Arrasate Euskadiko laugarren hiriburu bihurtzea da haren helburua. Hark agertu zuen sozialisten ahaleginengatik izango ez balitz, Arrasatek ez zukeela lortuko eraikiko den eskualdeko ospitale berria. Lorpenen artean ere Gelmako langileentzat adostutako hitzarmena aipatu zuen Alderdi Sozialistako alkategaiak. Era berean, agindu zuen hautatua izanez gero, Udalean ez dela apropos egindako izendapenik egongo eta gardentasuna egongo dela eman zuen hitz.



Paco Gartzia.




## Albiste izango da

**BERGARA** | 19:00ETAN, MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

### Movimiento Sin Tierrako kideek hitzaldia egingo dute etzi

Brasilgo Movimiento Sin Tierrako hainbat kidek hitzaldia egingo dute etzi, eguaztena, 19:00etan, Miguel Altuna institutuko aretoan. Gurean dira egunotan MSTko 18 kide. Kideok Brasilgo 18 errealitate kooperatibo ordezkatzen etorri dira. HUHEZIko Lanki institutuaren, Mundukideren eta Saiolanen laguntzarekin prestakuntza eskolak jasoko dituzte zortzi astez Eskoriatzako fakultatean. Kooperatibismoa ulertzeko modua eta autogestioa, ikastaldia eta eraginkortasuna enpresa kudeaketan izango dira prestakuntza eskolen oinarria.

**ESKORIATZA** | ERAKUSKETA INKERNU TABERNAN DAGO

### Autobideko lanek eragindako kalteak argazkitan jaso dituzte

Onbide.org eta Aitzorrotz kultura elkarteek autobideak herrian eragindako kalteen gaineko erakusketa jarri dute ikusgai Inkernu tabernan. 70 bat argazki daude, bi ataletan banatuta: batetik, udalerriko elizateetan –batik bat Marinen, Mazmelan, Zarimutzen eta Apotzagan– egindako apurketa eta kalte nagusiak jaso dituzte. Horiek detaileko eta argazki panoramikoekin erakusten saiatu dira eta informazioarekin lagunduta doaz. Bestetik, autobidea egiten diharduten enpresek eragindako bestelako kalteak ere jaso dituzte argazkiotan: legez kanpoko hondakindegiak, isurketa toxikoak, Intxaurtxuetara jausitako harriak, Santa Ana gainean zabaldutako ke lainoa... Hilaren 14ra arte egongo da ikusgai.

**BERGARA** | HIRU ASTEZ JARDUNGO DUTE

### Gaur hasiko dira Elkargiren finantza kudeaketa jardunaldiak

Elkargik Bergaran duen bulegoak finantza kontuak ezagutzen lagunduko die enpresei. Horretarako jardunaldiak antolatu ditu, eta gaur, astelehena, hasiko dira. Jardunaldiotan, banketxeekin nola negoziatu, merkatuan dauden finantza laguntza onenak nola lortu eta kostuak nola kudeatu erakutsiko dute, besteak beste. Elkargiko profesionalek egingo dituzte hitzaldiak, hiru egunetan: gaur, hilaren 20an eta 27an, 18:00etatik 20:00etara, Miguel Altuna institutuko aretoan. Hitzaldion helburua da finantza arloan eta arlo ekonomikoan gertatzen ari diren aldaketei aurre egiteko enpresa ertain eta txikiek duten ahalmena handitzea. Antolatzaileen esanetan, 80 bat enpresatako ordezkariek hartuko dute parte jardunaldiotan.

**ARETXABALETA** | 18:30EAN IZANGO DA

### Urteko ohiko azkeneko osoko bilkura egingo du gaur udalbatzak

Ohiko osoko bilkura egingo du gaur, astelehena, udalbatzak, 18:30ean. Urteko azkeneko ohiko osoko bilkura izango da, bi hilabetean behin egiten dutelako. Lau gai izango dituzte eztabaidatzeko elkartuko diren zinegotziek.

Taxiaren datorren urteko prezioak aurkeztuko dituzte Debagoieneko Mankomunitatearekin bateratu eta gero. Gainerako hiru gaiak Ogasun Sailetik iritsiko dira: Udalak dituen ondasunen inbentarioa eta kreditu aldaketa aztertuko dituzte, besteak beste.

**ARRASATE** | HILAREN 18RA ARTE ZABALDU DUTE

### Kultura etxe berrian bisita gidatua egiteko epea zabaldu egin dute

Udalako Kultura Sailak aditzera eman duenez, zabaldu egin dute kultura etxe berrian egiten ari diren bisita gidatuen egutegia. Hasiera batean azaroaren 15era arte egitekoak ziren bisita gidatuok, baina "herritarrengandik jasotako harrera paregabea kontuan izanda, bisita epea zabaltzea erabaki dugu", esan dute. Hala, hilaren 18ra arte egingo dituzte bisita gidatuok.

Euskaraz zein gaztelaniaz egingo dituzte bisitak, eskatzailearen arabera, eta banaka zein taldeka egin daitezke. Bisita gidatuok egiteko eskaria arreta zerbitzuan egin behar dela ere ekarri dute gogora Kultura Sailetik.

## Hitzorduak



**SAN ANDRES AUZOAN DAGO AZAROAN TXATXILIPURDIKO LUDOTEKA** | San Andresko gazte txokoan dago zabalik hileko zapatu goiz guztietan

Txatxilipurdi elkarteak San Andres auzora eraman du azaroan bere ludoteka ibiltaria. Auzo horretako gazte txokoan dago ludoteka hileko zapatu guztietan, 11:00etatik 13:30era.

Han, 3 urtetik gorako umeek, bi hezitzaileren laguntzarekin, ondo pasatzeko hainbat aukera dituzte: euskarazko mahai-jokoak, eskulan tailerrak, gidatutako jolasak...

Bestetik, ibarreko beste herri batzuetako ludotekek ere zabalik dituzte ateak. Gogoratu behar da Bergarako Xipizaro ludoteka, adibidez, Agorrosin ekintzagunean dagoela orain.

**ARAMAIO** |

**• Adobe Acrobat Reader programa ikasteko aukera**

Programa horren nondik norakoak ikasteko aukera dago gaur, astelehena, KZgunean, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa euskaraz izango da.

**ARETXABALETA** |

**• Grafologia ikastaroan izena emateko epea, gaur arte**

Gaur, astelehena, hasiko da Tril emakume elkarteak antolatutako grafologia ikastaroa, eta izena eman gura dutenek Loramendira deitu behar dute (943 77 09 70). Irune Ibarra psikologo eta grafologoak emango du ikastaroa.

**ARRASATE** |

**• Kultura etxeko bisita gidatu gehiago egingo dituzte**

Kultura etxe berria ikusteko bisita gidatu gehiago antolatu ditu Udalak, oso erantzun ona jaso dute eta. Azaroaren 18ra arte dago bisitak egiteko aukera, euskaraz edo espainolez. Argibideetarako, jo BAZera.

**• Gabon aurreko jaialdia egingo dute Abaroakoek**

Gabon aurreko ospakizuna egingo dute Abaroako erretiratuek Elizondon azaroaren 21ean: bingoa, disko dantza eta opari banaketa izango dira. Izenemate epea bihar, martitzena, bukatzen da.

**BERGARA** |

**• Droga kontsumoaren gaineko jardunaldiak daude**

*Droga kontsumoa geroz eta gazteago* izenburuarekin, 14-16 urte artekoen gurasoendako jardunaldiak antolatu ditu Udalak. Euskarazko saioak azaroaren 21ean hasiko dira. Izenematea zabalik dago 943 77 91 26 telefonoan edo *mamor@bergara.net* helbidean.

**• 1980an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute**

80an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute azaroaren 25ean Zabala jatetxean, eta, izena emateko, 20 euro sartu behar da Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

**• 1950ean jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute**

Zabala jatetxean afalduko dute hilaren 18an, 21:00etan. Izena emateko, 30 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

**• Dantza askeko ikastaroan izena eman daiteke**

Dantza askeko ikastaroa emango dute azarotik otsailera; martxoan eta apirilean, berriz, ikastaro trinkoa emango dute. Edozeinetarako matrikula hileko 12 euro da. Izenematea, 943 76 36 61 telefonoan.

**• 1953an jaio direnek batera afaltzeko aukera dute**

53an jaiotakoek batera afalduko dute azaroaren 18an Agorrosin tabernan. Izenematea zabalik dago han, Kiñun eta Tasioren ONCEko kioskoan.

**• 1957an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**

57an jaio direnek afaria antolatu dute azaroaren 25erako Agorrosin tabernan. Izenematea zabalik dago Intxorta tabernan. 10 euro da.

**ELGETA** |

**• Biodantza ikastaroko lehen saioa, datorren eguenean**

Biodantza ikastaroa hasiko da azaroaren 16an, eta egun horretan doan izango da, biodantza ezagutarazteko. Eskolan batuko dira, 19:00etan.

**ESKORIATZA** |

**• Aitzorrotz elkarteak ekintzak antolatu ditu**

Aitzorrotz elkarteak eta Inkernu tabernako arduradunek ekintzak antolatu dituzte. Hala, azaroaren 25ean, zapatua, ardodastatzea egingo dute Herriko Plazan.

**OÑATI** |

**• Dendariendako seminario batzuk antolatu dituzte**

Honako seminarioak daude datozen egunotan: produktuak nola aurkeztu (hilak 14) eta promozioak eta beherapenak (hilak 16). Santa Anan izango dira, 20:30ean. Txanda elkarteak antolatu ditu.

# Debagoieneko
# WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
ZUMADIA
www.zumadia.com

**AKADEMIAK**
BASTIDA
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

**ARETOAK**
360 ARETOA
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ARRAINDEGIAK**
ITXASEDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

**ASEGURUAK**
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
WINTERTHUR
www.winterthur.es

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA**
AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

**AUTO-KONTZESIONARIOAK**
4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

**BIDAIA AGENTZIAK**
BARCELO
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**
OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
SETALDE
www.setalde.com

**ERAIKUNTZAK**
CONSTRULAN
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

**ESTETIKA ZENTROAK**
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.lilura.com
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

**FISIOTERAPIA ZENTROAK**
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

**GARBIKETAK**
HEMEN
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

**HARATEGIAK**
LANDALUZE
www.landaluze.com

**HAUR PARKEAK**
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

**HOTELAK**
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

**ILE APAINDEGIAK**
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INFORMATIKA**
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
HARRILUR
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti-com
UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

**JANARIAK**
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
BASTER ALDE
www.baster-alde.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com

**LANDETXEAK**
UXARTE LANDETXEA.
www.goiena.net/blogak/uxarte

**LEIHOAK**
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OKINDEGIAK**
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui

**OPARIAK**
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA**
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
ADOX
www.adoxnet.com

**SKATE&SNOW**
LAINO
www.laino.info

**SUKALDEKO ALTZARIAK**
BASTIDA SUKALDEAK
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK**
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIKA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

**UMEENDAKO ARROPA**
HAURTXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**
GELATZU
www.gelatzu.com

URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta

**ZERBITZU DIGITALAK**
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEA**
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Biteriko inguru berriari buruzko hainbat kritika**

Mota guztietako iritziak eragin ditu joandako zapatuan inauguratu zuten Arrasateko Biteri plazak. Irakurle batek inguru berriaren erosotasuna jartzen du zalantzan eta dio, batez ere, nagusienengan pentsatu gabe egin dutela. Irakurle batek dio Biterin ipini dituzten bankuak jende nagusiak erabiltzeko ezinezkoak direla, "oso baxuak direlako eta ez direlako erosoak edadetuentzat, ez dute-eta bizkarralderik". Ipini duten zorua bera labainkorra dela dio irakurleak, eta ipinitako lorategi txikitxoak ez direla nahikoak. "Zer esanik ez", gehitzen du hark, "pergola berriaren erabilpenik ezaz; han ezin daiteke ezer egin, negurako babesik ez duelako eta udan eguzkiak bete-betean jotzen duelako".

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Sarean harrapatuta

### Segurtasun uhalaren erabilera normalizatuta dago?

**Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eta udaltzaingoek kanpaina hasi dute, segurtasun uhala, ibilgailuetan haurrentzako eserlekuak eta eskola garraioa zaintzeko. Kanpainaren helburua da gidariak kontzientziatzea eta eskola-umeak garraiatzeko orduan segurtasuna bermatzea. Bada, segurtasun neurri horiek normalizatuta daudela uste duzu? Galdera hori egin dute *Goiena.net*-en. Hemen erantzunak.**

#### GUZTIOK ERAMATEN DUGU UHALA JARRITA

Nik uste dut dagoeneko jendea nahiko kontzientziatuta dagoela. Trafiko zuzendaritzak kanpaina gogorrak egin ditu, batez ere telebistakoak eta gainera isunak gogortu dituzte. Zer esanik ez puntukako karneta dela-eta. Orain berehala kentzen dizkizute puntuak uhala ez baduzu eramaten. Horrek agiririk gabe geratzeko arriskua areagotzen du. Horren guztiaren ondorioz, jendea azkenean kontzientziatu dela uste dut eta orain ia guztiok eramaten dugula uhala esango nuke.

Leire / www.goiena.net

#### EDADEKO JENDEAK EZ DU ERABILTZEN

Ni ez nago horren seguru! Herrian ibiltzeko, esaterako, oso gutxik erabiltzen du uhala. Herrien arteko ibilbideetan ere jendea hasi da erabiltzen segurtasun uhala, baina oraindik bada erabiltzen ez duenik. Adibidez edadeko jendea. Bestalde bat nator Leirek esan duenarekin. Izan ere, trafiko zuzendaritzaren kanpainak jendearen artean eragina izan duela uste dut. Baina, benetan eragina izan duena eta behin betikoa izango dena puntuzko karneta da. Horri bai egingo diola jendeak kasu.

Mikel / www.goiena.net

#### NEURRIA SERIO HARTU DUTELA DIRUDI

Ertzainak ikusi ditut bi aldiz kontrola egiten, auto gidari guztioi begira zeuden ea uhala jarrita generaman edo ez. Badirudi kontua serio hartu dutela eta pozten naiz hori ikusita. Izan ere, askotan esan egiten dute eta gero egin ezer ez. Istripuak ez dira saihestuko, baina behintzat hildako gutxiago egoten badira neurri hau hartuta oso ondo iruditzen zait.

Marijo / www.goiena.net

**www.goiena.net**

**Segurtasun uhalaren erabilera normalizatuta dagoela uste duzu?**




Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

#### AULKIEKIN DIRUA EGINGO DUTE BATZUEK

Niri hauek guztiak gutxi batzuek dirua egiteko estrategiak direla iruditzen zait. Ondo dago uhalaren erabilpena gehitzea, baina umeendako aulkiena? Negoziorako kontua dela iruditzen zait. Zergatik ez dizkigute ematen aulkiak hain garrantzitsuak baldin badira?

Lupe / www.goiena.net

#### HERRITIK IRTETEKO JARTZEN DU AITAK

Zer esango dizut bada? Niri oso ondo iruditzen zait neurria eta ez dut uste dirua kentzeko estrategia denik.

Galderari erantzunez, geroz eta jende gehiago ikusten da uhalarekin, baita herri barruan ere. Nire aitak, adibidez, lehenago ez zuen inoiz jartzen eta orain herritik irtetzen denean, behintzat, jartzen du.

Saioa / www.goiena.net

#### UMEEN ONERAKO DIRA AUTORAKO AULKIAK

Nik uste jendea kontzientziatu dela arazoarekin. Datuak ikusi besterik ez dago uhalak asko balio duela konturatzeko. Eta umeen aulkiena ez da dirua ateratzeko; ume askoren bizitza salbatu dute aulkiek.

Saioa / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

Zabor organikoa jaso eta ondoren ongarria egiteko egitasmo pilotua egingo du Foru Aldundiak. Zer iritzi duzue

?



**LUIS MARIA OIARBIDE** | DIPUTATU FORALA

Urola bailaran ipiniko dute proban konpostajearen aukera, bosgarren edukiontzia jarrita. Horrek hasiera emango dio Gipuzkoa osora zabaldu nahi den egitasmoari. Etxeetako hondakin organikoak tratatzeko lehen planta Azpeitian eraikiko dugu sistema probatzeko.



**MIKEL JAIO** | MANKOMUNITATEA

Proba horretan mankomunitate moduan interesa daukagu, hortik ikusiko da-eta zerbitzua nola antolatzen den eta planta bat egitekotan nola optimiza daitekeen. Debagoienean 75 familiari eman zitzaien iaz etxean konpostatzeko aukera eta oso erantzun ona izan zuen egitasmoak.



**JAVIER ABALDE** | EKOLOGISTAK MARTXAN

Konpostajearen alde nago ni, baina Aldundiak orain arte hondakinen tratamenduan izan duen jarrera ikusita oso susmagarriak iruditzen zaizkit haien asmoak. Nik uste dut aurpegia garbitzeko besterik ez dutela egin, ze beste aldean baitaukagu erraustekplantekin duten jarrera.



**XABIER SARASUA** | ARALAR

Egitasmoa mankomunitate guztietara zabaltzeko eskatu dugu guk, dagoeneko nahiko denbora galdu da-eta probetan, eta teknologia aurreratua dago. Apalegiak iruditzen zaizkigu Aldundiak ezarritako helburuak, beste herrialde batzuetan frogatuta dago-eta bideragarritasuna.

## Egunkarietako harribitxiak

**XABIER LETE NOR DEN JAKITEKO**

Oiartzuarrak poemak eta haien iruzkinak batu ditu *Abestitzak eta poema kantatuak* liburuan. Horrekin batera lau disko ere kaleratu ditu. Bere lehen hiru diskoen berrargitalpenak berriro masterizatuak, eta Lurdes Iriondoren kantu grabazioekin osatutako antologia (oraindik ez plazara iritsi).

**'Noticias de Gipuzkoa'**
2006-11-11


mirarte
Xabier Letek bere izatea plazaratu du

**EUSKAL LIBURUTEGIA AMERIKAN**

Orain dela 40 urte sotu zuten Robert Laxaltek eta William Douglassek Euskal Liburutegia Renon, Euskal Ikasketa Programari sostengua emateko asmoz. Baina urteak aurrera joan dira, eta aldatuz joan dira beharrak. Euskal Liburutegia bere rola berriro definitzeko tenorean da; haatik, aurrera egiteko baliabideak ez ditu soberan. Hala, iragan otsailean Nevadako Unibertsitateko Liburutegi Nagusiak Imanol Irizar –HABEko liburutegiaren sortzaile eta zuzendari izandakoa– izendatu zuen Euskal Liburutegiko arduradun, eta haren esku utzi erakundearen berrantolaketa.
Eta dagoeneko eman dituzte lehen urratsak: funtsak antolatzea eta katalogazioa bideratzea, hain justu ere.

**'Gara'**
2006-11-11


mugalari 395
EUSKAL LIBURUTEGIA AMERIKAN

## Tira, tira...




**Montxo** 'Berria' | 2006-XI-12

## Zorroztailea

# Hegaz(kin)



*"Zentzu-izpi baten jabe den edozeinek badaki aste honetatik aurrera aireportuetan ezarri diren 'segurtasun' neurriak erokeria hutsa direla. Ezer ez dago inseguru eta umiliagarriagorik, uniformedun talde baten paretik, prakei eskuekin eusten diezula, metalak detektatzeko arku baten azpitik igarotzea baino. Prezio horretan, segurtasuna prezioa besterik ez da".*

**Juan Jose Millás**
**'El País'** | 2006-11-11

Gerardo Markuleta

Aurten Madrilgo Zibeles modapasarelan gertatutakoak (gorputzmasa gutxieneko batera heltzen ez ziren modeloak kanpoan geratu dira) gogora ekarri dit oso solidario sentitu ohi naizela tallaz kanpokoekin. Halakoetan, denda "normaletan" bere neurriko arroparik aurkitzen ez duen jende handia aipatu ohi da. Baina arazo horrek badu bere ifrentzua ere, jende txikia alegia: ba al dakizue zein zaila den gizonezkoentzako 38ko praka batzuk aurkitzea? Galtza-uhal edo tiranteak gorroto badituzu, eta nerabeen dendetan sartzeko lotsa bazara, zer egin? Bada, gerriko on batzuk erosi, eta zulo gehigarri pila bat egin, zer erremedio.

Gutxitan hartzen dut nik hegazkina, eta gutxitan pasa dut lotsa handiagorik Forondan, bidaiari ekingo banion, petrina kentzeko agindu zidatenean baino. Hegan egitearekin amets egin zuen lehen gizakiaz oroitu nintzen. Hegaztiei begira irudikatu nuen, lurretik altxatu eta era guztietako oztopoak gainditzeko askatasuna amets zuela. Zer pentsatuko ote luke orain gure aireportuetako batean egokituz gero, arku detektatzailearen azpitik pasatzen, polizia klase pila baten artean, karneta ahoan, bidai txartela esku batean, bestearekin prakei eusten, plastikozko poltsa gardenak… (bukatu zaizkit eskuak).

Millás-ek ondo dioenez, larriena ez da 100 mililitrotik gorako ontzirik ezin eramatea; larriena izango da masa entzefaliko osoarekin pasatzen uzten ez digutenean. Baina beharbada murrizketa hori, oharkabean, hasia dago honezkero. Burua osorik eta bere lekuan lukeen gizarte batek ez zukeen, besterik gabe, halako inposaketarik onartuko.

**"Gutxitan pasa dut lotsa handiagorik Forondan, bidaiari ekingo banion, petrina kentzeko agindu zidatenean baino"**

**"Larriena izango da masa entzefaliko osoarekin pasatzen uzten ez digutenean. Baina, beharbada, hasi da murrizketa hori"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

**ELKARRIZKETA**

"Janari ekologikoak merezi du. Eskoletako janlekuetan sartzea komenigarria dela uste dugu, modu horretan ikasleengan ari garelako sartzen modu egoki eta orekatuan jateko ohitura. Baita naturarekiko errespetuzkoa ere. Hala, nagusiak direnerako ere prestatuko ditugu erabakitzen jakin dezaten ze elikagai mota nahi duten".

**Agurtzane Jimenez**
2006-11-11

### 'Berria'

**ELKARRIZKETA**

"Ezin dugu erran unibertsitate bat txarra edo ona den ezagutza zabaltzeko eta sortzeko erabiltzen duen tresnaren arabera. Unibertsitate baten kalitatea ez da erabiltzen duen tresna linguistikoaren araberakoa. Galdera Nafarroako politikan pisu nabarmena duen batek esan zituenengatik egiten badidazu, ezin dut bestetik erran".

**Pedro Burillo**
2006-11-11

### 'Noticias de Gipuzkoa'

**IDEIA LEHIAKETA**

Ez atzera egiteko ezta erreflexionatzeko gauza izan ez dena Bushen lagun-min Aznar izan da. Zerbitzu sekretuek jakinarazi zioten Irakeko inbasioarekin bat egiteak arrisku terrorista zekarrela. Ez zuen jaramonik egin. Berretsi egin zien herritarrei Sadamen arma kimikoen kontua, eta izuak Madril hartu zuenean, ETAri leporatu zion errua.

**Editoriala**
2006-11-11

### 'El Mundo'

**ZERO PAPER**

Herrialde aberatsen arazoa ei da ekologia, eta urteak dira gurean ere gai hori dabilela bueltaka. (...) Gutxi edo asko, egunero egokitzen zaigu ekologiaz gogoeta egitea, modu batean edo bestean. Hala ere, ekologista erradikalenak ere ez du kakatza honetatik libra gaitzakeen erabaki bakarra hartu: ez dut zaborrik sortuko.

**Hasier Etxeberria**
2006-11-11

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Mireia Bikuña, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Goreti Elortza

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Oxel Arrieta | **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

LAGUNTZAILEA
Gipuzkoako Foru Aldundia

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Mugarri Alkesak garaipen erosoa lortu zuen zapatuan: 90- 57 | 15
• Piraguismo topaketan 46 neska- mutikok parte hartu zuten | 21



Ivan Velascok Euskaltelekin korrituko du denboraldi berrian | 21

PREFERENTE MAILA

ORDIZIA
**0-0**
ALOÑA MENDI

**Ordizia** | Antxon, Jon, Iker, Usobiaga, Iraola, Sergio (Urbieta, 75. min.), Munduate, Iñigo, Oiarbide, Pablo (Olaizola, 75. min.) eta Aierbe (Imaz, 55. min.).

**Aloña Mendi** | I. Idigoras, X. Elgarresta, R. Idigoras (Garai, 62. min.), Camino, U. Arregi (I. Arregi, 83. min.), Zubia, Barrena, Lopez, Maiztegi, Astola eta Olalde.

**Epailea** | Ibañez Gonzalez jauna. Azken txanpan, etxekoek egindako falta asko adierazi gabe utzi zituen.

**Bestelakoak** | Ikusle asko hurreratu ziren partidua ikustera.

### Bikain

**Lehenengo zatia**
Orain arte jokatutako partiduetan, taldea bere jokoa egin ezinik zebilen, eta zapatuan denboraldiko 45 minuturik onenak jokatu zituzten oñatiarrek.

### Kaskar

**Azkeneko hamar minutuak**
Partidu osoan oñatiarrek etxeko taldea mendean hartu ondoren, zelaian bildutako zaleek epailea presionatu zuten eta ordiziarrek gora egin zuten, nahiz eta golik ez zuten egin.

### Esandakoak

"Denboraldiko partidu osoena jokatu dugu. Ordiziarrek ezin izan diote guk erakutsitako joko onari aurre egin".

"Talde-lana ona izan da partiduan zehar, baina azkenean lan hori gol batekin borobiltzea falta izan zaigu".

**AITOR ORUETA**|
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



ARTXIBOA

Oruetaren taldea sendo aritu zen partidu osoan, eta puntu baliotsua lortu zuen.

**FUTBOLA** | DENBORALDIAN BIGARREN ALDIZ ATEA HUTSEAN UZTEA LORTU ZUTEN ORUETAREN MUTILEK

# Aloñak puntu bat baino gehiago merezi izan zuen

*Ordiziarren aurka egindako partidu onak erakutsi die oñatiarrei joko aldetik gora bidean doazela, eta bide horretatik jarraitu behar dute*

Jasone Zabala

Zapatuan batutako puntua garrantzitsua eta landua izan zen Aitor Oruetaren mutilentzat.

Ordiziarrek talde indartsua dute eta euren zelaian punturen bat lortzeko gogor egin behar da lan, eta futbol ona egin golik jaso gabe. Oraingo honetan, hiru baldintza horiek bete ziren, nahiz eta golik ez zen lortu, baina indarberrituta eta pozik etorri ziren Ordizia aldetik oñatiarrak, puntu bat erdietsita.

Lehenengo zatia goitik behera menderatu zuten Oruetaren mutilek, denboraldiko 45 minutu onenak jokatu zituzten. Ez zuten kontzentraziorik galdu, eta ordiziarrak partiduan sartu ezinik ibili ziren, Aloñaren defentsa eta joko ona nola apurtu ezin asmatu.

**GOL AUKERA UGARI**
Horrela, oñatiarrek lau gol aukera garbi izan zituzten. Xabi Elgarrestak bat, Caminok beste bat –langan jo zuen baloiak–, Astolak hirugarren aukera bat eta laugarrena Camino eta Idigorasen arteko bat. Bada, atsedenaldira oñatiarrak lasai joan ziren, pozik ordura arte egindako lana ona izan baitzen; ordiziarrak, aldiz, lehenengo zatian erakutsitakoa, bigarrenean aldatzeko asmoz.

> **Aloñak erakutsitako joko onak zelaitik atera zuen Ordizia**
>
> **Gola norbaitek merezi izan bazuen, Aloña izan zen, izandako aukera guztiengatik**

**BIGARREN ZATIA, EZBERDINA**
Oruetak, lehen zatian, Camino ipini zuen Elgarrestaren ondoan aurrean, erasoari begira presioa egiteko asmoz, baina lehen zatian egindako presio lanak behera egin zuen bigarren zatian nekearen poderioz, eta orduan hasi zen etxeko taldea partidu osoan izan ez zituen aukerak sortzen; baina futbol ona egin baino gehiago, indarrez ari ziren aurre aldera jotzen ordiziarrak. Eta Aloñak gogor eutsi zion Ordiziaren erasoari; gero, etxekoak falta ugari egiten hasi ziren, eta oñatiarrek azken hamar minutuak larri pasa zituzten arren, pozik bueltatu ziren puntuarekin.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Iazko denboraldian Pasaiak irabazi zuen Atxabalpen: 0-1.

# Mondrako atezainak azken unean penaltia geratu zuen

PASAIA
**0-1**
MONDRA

**Pasaia** | Vidal, Josu, Aitor, Ibai,Eneko, Alberto, Iraitz (Beñat, 78. min.), Ekait,Jon (Santos, 71. min.), Joseba eta Imanol.

**Mondra** | Ander, Loiti, Andoni, Argider (Arkaitz, 46. min.), Laspiur, Rueda, Illart (Heriz, 46. min.), Muxi (Markel, 82. min.), Aranbarri (Losada, 89. min.), Gotzon eta Ekain.

**Golak:** 0-1, Julen Heriz (72. min.).

**Epailea:** Ayesa jauna. Lan makala egin zuen. Jokoa momenturo gelditu zuen. Ez zuen abantailaren legea ondo adierazi.

Mireia Bikuña

Neurri handi batean Ander atezainari esker lortu zituen Mondrak zapatuan jokoan zeuden hiru puntuak, Pasaiak taldeko jokalari batek jaurtitako penaltia geratu zuen-eta.

Hala, Pasaiaren aurkako garaipenarekin, Mondra preferenteko sailkapeneko hirugarrena da, 18 punturekin.

**LEHEN ZATIAN, ESKAS**

Azkeneko partiduetan ez bezala, zapatuan Mondrak hobeto jokatu zuen bigarren zatian.

Lehenengo zatia nahiko txarra izan zen jokoari erreparatuta; Pasaiak jokatu zuen hobeto lehenengo zatian.

Eta atsedena ongi etorri zitzaien Igor Gordobilen mutilei; bigarren zatian beste itxura bat erakutsi zuten. Entrenatzaileak bi aldaketa egin zituen eta taldeak nabaritu egin zuen.

Hala, Mondra aukerak sortzen hasi zen, eta haietako bat aprobetxatu zuen Julen Herizek gola egiteko. 72. minutua zen.

**URDURITASUNA**

Amaiera aldera, baina, Iker Laspiurrek ikusitako txartel gorriak zaildu egin zuen lehia. Pasaiak aurrera egin zuen eta aukera garbiena izan zuen berdinketa lortzeko: 90. minutuan epaileak penaltia adierazi zuten etxeko taldearen alde: zorionez, Pasaiak huts egin zuen penaltia.

# Hobeto jokatu arren, UDAk ez zuen irabazi

TOURING
**1-1**
UDA

Mireia Bikuña

Hasieratik bukaerara menderatu zuen UDAk Touringen aurka jokatutako norgehiagoka. Hala, garaipena eskura izan zuen Recioren taldeak. Bada, berdinketa besterik ez zuten lortu.

**TOURING AURRETIK**

Lehenengo zatian aukera garbiak izan zituen UDAk. Oinatz Agirrek bi aukera izan zituen. Baina etxeko taldea aurreratu zen markagailuan. Falta jaurtiketa baten egin zuten gola.

Bigarren zatiko lehen 20 minututan, berriz, UDAk menderatu zuen partidua eta aukerak sortu zituen. Arriagak berdinketaren gola egin ostean, Recioren taldeak aurrera egin zuen golaren bila, baina ez zuten erdietsi.

UDAk egindako presioaren aurrean, etxeko taldeak partidua amaitzea eskatu zuen biziki.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Aurrera-Zestoa | 0-1 |
| Ordizia-Aloña Mendi | 0-0 |
| Hondarribia-Zarautz | 1-2 |
| Hernani-Trintxerpe | 1-2 |
| Pasaia-Mondra | 0-1 |
| Martutene-Idiazabal | 2-2 |
| Urola-Berio | 1-1 |
| Mutriku-Anaitasuna | 0-2 |
| Touring-UDA | 1-1 |

**HURRENGOAK**

UDA-Zestoa
Aloña Mendi-Aurrera
Zarautz-Ordizia
Trintxerpe-Hondarribi
Mondra-Hernani
Idiazabal-Pasaia
Berio-Martutene
Anaitasuna-Urola
Touring-Mutriku

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **25** | 10 | 8 | 1 | 1 | 20 | 6 |
| 2. **Anaitasuna** | **18** | 10 | 6 | 3 | 1 | 14 | 6 |
| 3. **Mondra** | **18** | 10 | 6 | 3 | 1 | 11 | 7 |
| 4. **Touring** | **17** | 10 | 5 | 2 | 3 | 17 | 9 |
| 5. **Zestoa** | **17** | 10 | 5 | 2 | 3 | 14 | 11 |
| 6. **Hernani** | **16** | 10 | 5 | 4 | 1 | 20 | 13 |
| 7. **Berio** | **15** | 10 | 4 | 3 | 3 | 14 | 12 |
| 8. **Ordizia** | **15** | 10 | 4 | 3 | 3 | 10 | 9 |
| 9. **Trintxerpe** | **14** | 10 | 4 | 4 | 2 | 10 | 13 |
| 10. **Aloña Mendi** | **13** | 10 | 4 | 5 | 1 | 7 | 14 |
| 11. **Pasaia** | **12** | 10 | 3 | 4 | 3 | 10 | 14 |
| 12. **Urola** | **11** | 10 | 2 | 3 | 5 | 7 | 8 |
| 13. **Aurrera** | **11** | 10 | 2 | 3 | 5 | 14 | 16 |
| 14. **Idiazabal** | **10** | 10 | 2 | 4 | 4 | 6 | 14 |
| 15. **UDA** | **9** | 10 | 2 | 5 | 3 | 7 | 10 |
| 16. **Hondarribi** | **9** | 10 | 2 | 5 | 3 | 6 | 12 |
| 17. **Martutene** | **8** | 10 | 2 | 6 | 2 | 11 | 15 |
| 18. **Mutriku** | **7** | 10 | 1 | 5 | 4 | 8 | 17 |

## Lehenengo erregionala

# Denboraldiko partidu onenean, puntu bat gehiago

ELGOIBAR
**1-1**
BERGARA

Asteleheneko Goienkaria

Zapatuan puntu bakarra lortu zuen Bergarak, hiru puntuak esku-eskura izan zituenean. Zorte txarra izan zuten Neka Galanek zuzentzen dituen mutilek. Lehenengo zatian ez zuen inork agindu zelaian eta eraso jokoa talde bietatik zetorren. Bergarak hiru korner izan zituen alde, baina ez zuen golik egin.

Bigarren zatian, aldiz, Bergarako taldeak aurrera egin zuen, eta 15. minutuan, Jon Baltzategik, berak landutako jokaldi on batean, gola egin zuen. Etxeko taldea erasora nola jo ez zekiela zebilen, eta gol aukerak sortzea kosta egiten zitzaion. Bergarako jokalariak lan handia eginez markagailuan zuten abantaila defendatzen zebiltzan. Elgoibarrek, berriz, jokalari altuak dauzka eta estrategia jokaldien bidez berdinketaren gola lortu nahi zuten; eta minutuak aurrera, nekea ere agertu zen Galanen mutilen jokoan.

**ZORTE TXARRA**

Eta partidua amaitzear zegoela, Bergarak hiru puntuak etxera ekarriko zituela zirudienean, Bergarako defentsaren eta atezainaren arteko zorigaiztoko jokaldi baten, Elgoibarrek berdinketaren gola egin zuen 90. minutuan.

Horrela, ezer gehiagorako astirik gabe partidua amaitu zen, eta puntuak banatuta, zapore gazigozoarekin bueltatu zen Bergarako taldea etxera.

## Gipuzkoako Txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

**MONDRAK IRABAZI ZUEN IBARREKO DERBIA: 3-0**

Garaipen erosoa lortu zuen Mondrako nesken futbol taldeak Bergarako BTLS taldearen aurka jokatutako partiduan. Gipuzkoako Txapelketako derbia zapatuan jokatu zen Atxabalpen. Mondrak menderatu zuen partidua eta golak ere arrasatearrek egin zituzten: Maialen Lopez, Araitz Etxabe eta Aitziber Alonso izan ziren golegileak.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

# Ondo jokatutako partiduan, garaipena Aloñarentzat

*Hasieratik ederto aritu ziren Aloñakoak eta lehen garaipena lortu zuten etxean*



JOSETXO ARANTZABAL

Fin aritu ziren erasoan eta defentsan Aloñako neskak, partidu osoan.

**VERKOL ALOÑA**
**20-12**
**RIOJA**

**Verkol Aloña** | Zabaleta, Zuazukaigorraga, Goñi (1), Larrañaga (2), Altuna, Unamuno (3), Madariaga, Zubeldia (1), Usabiaga, Sanchez (4), Elorza, Arteaga (4), Manuel (3) eta Olabarria (3).

**Rioja** | S. Soto, Cruz, Echazarreta (3), Ruiz (2), R. Soto (1), Benito (5), Saenz, Ubis (1) eta Santamaria.

**Bost minuturo golak:** 2-1, 4-1, 5-1, 7-3, 7-4, 9-6, 10-7, 13-8, 14-10, 17-11, 20-11 eta 20-12.

Jasone Zabala

Denboraldiko lehen garaipena lortu zuten Maitaneren neskek zapatuan.

Rioja taldeko jokalari gutxi etorri ziren partidua jokatzera, eta aldaketak egiteko aukera gutxi izan zuen entrenatzaileak. Etxekoek ederki hasi zuten partidua, baloia ondo mugituta eta defentsan gogor, eta berehala lortu zuen markagailuan errenta. Hasieratik, kanpokoek 1-5eko defentsa egin zuten, baina oñatiarrek ederki apurtu zuten lehen lerro hura. Horrela, atsedenaldira hiru goleko aldearekin joan ziren etxekoak: 9-6. Bigarren zatian errioxarrak indartsuago atera ziren, eta euren atezainaren geldiketa bikainei esker partiduan sartuta jarraitu zuten. Hala eta guztiz ere, partiduaren 40. minutuan ordura arteko abantailarik handiena lortu zuen etxeko taldeak: 13-8.

Errioxarrak nekea nabaritzen hasi ziren, eta etxekoek hori aprobetxatuz kontraerasoa bat baino gehiago gauzatu zituzten. Maitaneren neskek sei goleko errentari eutsi zioten azken 20 minutuetan, eta lasaiago jokatzen hasi ziren.

**BI KANPORATU**

Horrez gain, epaileak, 53. minutuan, Rioja taldeko bi jokalari kanporatu zituen txartel gorria erakutsita, eta momentu hartan partidua guztiz erabakita gelditu zen etxekoen alde.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Kontraerasoan bikain jokatu zuten

**BERGARA**
**38-26**
**DONIBANE**

**Bergara** | Jon, Uribe (4), Agirre (6), Ruben (3), Pozo (2), Jose (6), I. Najera, Errasti, X. Najera (1), Josu (1), Hodei (4), Ugalde (4) eta Plazaola.

**Donibane** | Calvo, Mazos (4), Gonzalez, Escribano (2), Perez (7), Idoipe (4), La Fuente (2), Fontaina (2), Badiola (1) eta Perez (6).

**Golak:** Atsedenean: 21-13.

Mireia Bikuña

Partidu bizia jokatu zuen Bergarako senior mailako taldeak Donibaneren aurka; hain zuzen ere, kontraerasoetan eta jokaldi azkarretan oinarritu zuten atzoko garaipena.

**ERASOAN, ONDO**

Lehenengo zatian egindako lanak eman zion garaipena Bergarari, eta kontraerasoan ondo baino hobeto moldatzen direla erakutsi zuten. Gol asko lortu zituzten horrela. Bestalde, erasoko jokaldietan baloia azkar eta ondo mugitu zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Ordiziak trebetasun handiagoa erakutsi zuen erasoan.

Bigarren zatia ez zen hain ona izan, eta Bergarak lehen gola egiteko sei minutu behar izan zituen. Tarte hartan Donibanek trebetasun hobea erakutsi zuen. Ordu laurdena bete orduko hamar goleko errenta zuen Bergarak: 27-17. Bukaera arte eutsi zion.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

## Ford Mugarrik berdindu egin zuen: 23-23

Mireia Bikuña

Eskubaloiko partiduetan oso ohizkoa ez bada ere, Ford Mugarrik eta Gure Jorge Fernandez taldeek zapatuan jokatutako norgehiagoka berdinketarekin amaitu zen.

**PARTIDU PAREKATUA**

Musakolan jokatutako partidua oso parekatua izan zen, eta markagailuak gorabehera asko izan zituen.

Bigarren zatian, Ford Mugarrik lau goleko aldea izan zuen markagailuan. Bada, minutu haietan Gure Jorge Fernandez taldeak lasaitasun handiagoa erakutsi zuen; bizkaitarrek lehia berdindu zuten amaitzeko bost segundo falta zirela.

Ford Mugarrik azken gola denboraz kanpo egin zuen.

• LEHEN TERRITORIALA

## Arrasatek ezin izan zuen garaipenik lortu

Atzo arrasatearrek Ormaiztegin jokatu zuten partidua, eta 23-18 galdu zuten.

Lehen zati ona jokatu zuten Debagoienekoek, eta atsedenaldira irabazten heldu ziren: 11-12.

**BIGARREN ZATI TXARRA**

Atsedenaldiaren ondoren, Ormaiztegikoek defentsa asko gogortu zuten, eta orduan nabaritu zuten arrasatearrek kategoria berriaren pisua. Jokalariak kikildu egin ziren, eta etxekoen jokoa ezin izan zuten gelditu, ez erasoan ezta defentsan ere, eta bost goleko aldeagatik galdu zuten.

Datorren astean Bergararen aurkako derbia jokatuko dute etxean, eta, nahiz eta aurkaria gogorra den, aukera ezin hobea izango da denboraldiko lehen partidua irabazteko.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **BIGARREN MAILA NAZIONALA** | |
| Ford Mugarri-Gure Jorge Fdz. | 23-23 |
| **EMAKUMEZKOEN GOREN MAILA** | |
| Verkol Aloña-Univ. La Rioja | 20-12 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA** | |
| Bergara-Donibane Eskubaloi | 38-26 |
| Ormaiztegi-Arrasate Eskubaloi | 23-18 |
| **KADETE NUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Ereintza | 22-23 |
| Unietako-Gatz Museoa Jakion | 11-30 |

• LEHENENGO MAILA

# Atsedenerako erabakita zegoen lehia

*Mugarri Alkesa 23 puntuko abantailarekin iritsi zen atsedenera, eta azken bi laurdenetan aldea handitzen joan zen*



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Biainek bi puntu egin zituen zapatuko partiduan.

**MUGARRI ALKESA**
**90-57**
**PROMOCIONES LEGARCIA**

**Mugarri Alkesa** | Jagoba (20), Imanol, Ander (8), Eraña (11), Beñat (11), Kintana (16), Antton (10), Alartzia (2), Iker (8), Iñigo (2) eta Paul (2).

**Promociones Legarcia** | Soto (3), Labaybo (9), Ojer, Aramendia (7), J. Boneta, L. Boneta, Juaniz (18), Vicente, Aranburu (12), Miguel, Cia eta Corvo(4).

**Laurdenak:** Lehenengo laurdena, 21-11. Bigarren laurdena, 48-25. Hirugarren laurdena, 72-34. Laugarren laurdena, 90-57.

Mireia Bikuña

Hasierako bi laurdenak behar izan zituen Mugarri Alkesak Promociones Legarcia taldearen aurkako norgehiagoka erabakita uzteko. Atsedenean, markagailuak 48-25 erakusten zuen Arrasateko taldearen alde. Bada, garaipen erosoa lortu zuen Gorka Zurututzaren taldeak.

**LEHENENGO BI LAURDENAK**

Ahalik eta azkarren partidua erabakita uzteko asmoz irten ziren kantxara Mugarri Alkesako jokalariak. Eta hasieratik hartu zuten abantaila Zurututzaren mutilek. Izan ere, berdinketa bakarra laugarren minutuan lortu zuen Promociones Legarcia taldeak: 10-10, hain zuzen.

Berdinketa haren ostean, hutsartea eskatu zuten arrasatearrek. Eta hutsartearen ondotik, Mugarri Alkesak 11 puntu egin zituen eta Promociones Legarciak, bakarra. Hala, lehen laurdenaren amaieran arrasatearrak ziren nagusi: 21-11.

Bigarren laurdenean ere partiduak bere horretan jarraitu zuen. Zurututzaren taldeak bikain jokatu zuen tarte hartan. Gorka Kintanak hiruko bi jaurtiketa egin zituen jarraian, eta markagailuko abantaila berehala handitu zen. Halaber, Promociones Legarcia taldeak puntu gutxi lortu zituen bigarren laurdenean: 14 besterik ez.

Horregatik guztiagatik, norgehiagoka erabakita zegoen atsedenerako.

**ALDEA HANDITU**

Azkeneko bi laurdenetan markagailuko abantaila handitzen joan zen. Arrasateko taldeak ia saskiratze gehienak lortzen zituen. Promociones Legarcia taldeak, aldiz, huts asko egin zituen. Hirugarren laurdenean, bederatzi puntu besterik ez zuten lortu. Puntu gutxiegi lehen mailako talde batendako.

Hala, laugarren tartean markagailuko abantaila 44 puntu izatera iritsi zen: 88-44. Gero, talde nafarrak hiruko jaurtiketen zelanbait txukundu ahal izan zuen aldea.

Hori dela eta, atsedenerako partidua erabakita zegoela ikusita, azken bi laurdenak emoziorik gabekoak izan ziren Iturripera hurbildutako ikusleendako.

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Joko eskasa ikusi genuen Zubikoan



JOSETXO ARANTZABAL

Ordiziak trebetasun handiagoa erakutsi zuen erasoan.

**ALOÑA MENDI**
**28-39**
**ORDIZIA**

**Aloña Mendi** | Arregi (4), Ugarte, Losada, Maestro (2), Etxeberria (2), Rozas, Cruickshank,Maestro (5), Pico eta Artzamendi (9).

**Ordizia** | IAizpurua, Iartzabal (2), Soto, Clemente(1), Azurmendi (9), Soto (1), Mendes, Madrazo, Dorronsoro (14), Sarraoa (12), Lasa eta Garmendia.

**Atsedeneko emaitza:** 13-17.

Mireia Bikuña

Partidu txarra jokatu zuten zapatu goizean Aloña Mendik eta Ordiziak; senior mailako Gipuzkoako Txapelketari zegokion bosgarren jardunaldia izan zen.

**JOKORIK EZ**

Sailkapeneko azkeneko lekuetan dauden bi talde dira Ordizia eta Aloña Mendi. Horren lekuko, bi taldeek erakutsitako joko eskasa. Partidu aspergarria jokatu zuten.

Eta, hain partidu eskasean, Ordiziak Aloñak baino saskiratze gehiago lortu zituen. Hala, partidua irabazi zuten.

**DENBORALDI TXARRA**

Denboraldi txarra egiten ari da Gorka Judezen taldea; izan ere, Aloñako senior mailako taldeak orain arte jokatutako partidu guztiak galdu ditu.

Datorren aste bukaeran Cafes Aitonaren aurka jokatuko dute.

• GIPUZKOAKO LIGA

## Beste garaipen bat Candy Bergararendako

Asteleheneko Goienkaria

Bost partidu jokatu ondoren, denboraldiko laugarren garaipena lortu zuen Candy Bergarak zapatuan Donostiako Cafes Aitona taldearen aurka, 61-71 irabazita. Partidua hasieratik amaiera arte nahiko parekatuta joan zen, baina Bergarako taldeak azken minutuetan nagusitasuna erakutsi zuen. Horren harira, Unai Iñarra izan zen taldeko saskiratzailerik onena, 23 puntu eginda.

• SENIOR MAILA, MUTILAK

## Lehen zatian erabaki zuen partidua Aloñak

Asteleheneko Goienkaria

Garaipen polita erdietsi zuten oñatiarrek zapatuan Oiartzungo Haurtzaro ikastola taldearen aurka: 74-66. Hala, lehenengo laurdenean 27-10eko partziala egin zuten etxekoek, eta handik aurrera partidua kontrolatu besterik ez zuten egin.

Laugarren laurdenean, zonakako defentsan jarri ziren kanpokoak, markagailuan gerturatzeko asmotan, baina etxean gelditu zen garaipena.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| LEHENENGO MAILA | |
|---|---|
| Mugarri Alkesa-Legarzia | 90-57 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Haurtzaro | 74-66 |
| Cafes Aitona-Candy | 61-71 |
| Ointxe | atsedena |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Ordizia | 28-39 |
| CD Internacional-Eskoriatza | 54-41 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Mugarri Alkesa-Graficas Ilba | 70-56 |
| Internacional-Aloña Mendi | 61-50 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Antigua Luberri-Txirrita | atsedena |
| Eskoriatza | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Bergara | atsedena |
| Aloña Mendi-Easo Harana | 40-37 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Aldapeta-Eskoriatza | 46-42 |

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2006ko azaroaren 13a

# Eskola kirola

**OÑATI**

## Kidetasuna da nagusi Oñatiko gaztetxoen arteko partiduetan

*Zapatu goizean Zubikoan izan ginen Oñatiko gaztetxoak jokoan ikusten*

*Nesken bi talde eta mutilen beste bi talde aritu ziren, biak ere eskubaloian*

*Goizean goiz izan ziren partiduak, eta guraso gutxi hurbildu zen bertara*

Jasone Zabala

Zapatuan Oñatin izan ginen, bertako gaztetxoak ikusten. Oraingo honetan eskubaloian jokatu behar zuten. Partiduak goizeko 10ak inguru hasi ziren eta ordu horretarako jokatzeko prest zeuden Altza, Ametza, Udala eta Degurixa taldeetako gaztetxoak.

**LAUGARREN JARDUNALDIA**

Hain zuzen ere, zapatukoa Oñatiko eskola kiroleko gaztetxoek jokatutako laugarren jardunaldia izan zen.

Lau taldeak zeuden kexu taldekideren bat edo beste falta zitzaielako, baina zeudenak, gutxi izanda ere, prest zeuden jokatzeko. Udala eta Degurixa taldeetako mutilek eta baita Ametza eta Altzako neskek eskubaloiko azken partidua jokatu zuten asteburuan, eta datorren astetik aurrera beste kirol bat lantzen hasiko dira, astean zehar izaten dituzten multikiroletako orduetan: "Eskubaloia gustuko dugu, baina gogo ikaragarria daukagu beste kirol bat egiten hasteko; oraindik ez dakigu futbola edo saskibaloia izango den".

Dena dela, gogoz jokatu zituzten bi partiduak bai neskek eta baita mutilek ere, eta nahiz eta guraso gutxi hurbildu partiduaren nondik norakoak ikusteko, taldekideek elkarri eman zizkieten animuak.



JASONE ZABALA

**Ametza.** Jone, Mireia, Oihane, Amaia, Naia, Miren eta Olatz agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

**Altza.** Ainara, Itsaso, Olatz, Oneka, Ane, Nagore eta Ainhize agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

**Udala.** Aritz, Mikel, Unai, Beñat, Matias, Asier eta Peio agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

**Degurixa.** Jokin, Mikel, Aitor, Iban, Julen, Jon eta Iñigo agertzen dira argazkian.

### • ZER MODUZ KONPONTZEN ZARETE AURKARIEKIN?



**AINARA ETA AINHIZE |**
ALTZA

Ainarak eta Ainhizek esan digute beste taldekoekin oso ondo konpontzen direla: "Gainera, gure lagunak dira, eta ez gara haserretzen".



**JOKIN ETA IBAN |**
DEGURIXA

"Oso ondo konpontzen gara beste taldekoekin. Gainera, gure lagunak dira, eta ez daukagu haserretzeko arrazoirik".



**JULEN ETA IÑIGO |**
DEGURIXA

"Ondo konpontzen gara, denok lagunak garelako, eta gure kontura futbolean jokatzen dugunen ere ez gara haserretzen".



**ANE ETA ITSASO |**
ALTZA

Altza taldekoek ez dute arazorik izaten aurkariekin: "Pozik etortzen gara kirola egitera, eta, gainera, ez gara haserretzen".



**ARITZ, UNAI ETA MIKEL |**
UDALA

"Ondo konpontzen gara beste taldekoekin, nahiz eta batzuetan oihuren bat edo beste bota elkarri, baina ez dugu arazorik. Futbolean ari garenean sutsuago aritzen gara, eta orduan haserretzen gara".

**GIPUZKOAKO LASTERKETA HERRIKOI NAGUSIAK 41 URTE EGIN DITU**




JOSETXO ARANTZABAL

Chema Martinezek Bulebarreko zuzenguneko bide bazterrean zeuden zaleei eskua emanez egin zituen azken metroak, lasai.

## Ibarreko lehenak

**GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| 1. Jose Gabriel Urizar | 01:09:02 |
| 2. Jacinto Farto | 01:10:02 |
| 3. Roberto Zurro Usabiaga | 01:11:16 |
| 4. Ritxar Fernandez Alkala | 01:11:28 |
| 5. Imanol Molinero Mendiguren | 01:11:57 |
| 6. Iker Sarabia Ugarte | 01:13:38 |
| 7. Jon Aperribai Uribetxebarria | 01:14:05 |
| 8. Jon Arantzabal Ezpeleta | 01:14:09 |
| 9. Victor San Jose Garcia | 01:14:11 |
| 10. Arkaitz Ruiz de Loizaga | 01:15:01 |
| 11. Iker Larrea Soraluze | 01:15:26 |
| 12. Joxu Arana Oregi | 01:16:30 |
| 13. Jose Ramon Gutierrez | 01:16:30 |
| 14. Javi Ibarra | 01:16:41 |
| 15. Javier Arkonada Martinez | 01:16:56 |
| 16. Iñaki Mugika Goikoetxea | 01:17:02 |
| 17. Francisco Blasquez | 01:17:06 |
| 18. Iban Uribetxebarria | 01:17:24 |
| 19. Luis Mari Uribesalgo | 01:17:27 |
| 20. Javier Moreno Castelo | 01:17:36 |

**EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| 1. Kristina Goirizelaia | 01:27:26 |
| 2. Mari Fran Alonso | 01:30:25 |
| 3. Ainhoa Calleja | 01:34:17 |
| 4. Arantxa Sasiain | 01:35:53 |
| 5. Aintzane Urtzelai | 01:35:57 |
| 6. Lierni Urtzelai | 01:36:25 |
| 7. Maria Rosa Agirre | 01:37:40 |
| 8. Lidia Gonzalez | 01:38:14 |
| 9. Edurne Elkoroiribe | 01:38:45 |
| 10. Marixol Iparragirre | 01:39:54 |

**BEHOBIA-DONOSTIA** | MARATOI ERDIA

# Robert Kipchumbaren faltan, Chema Martinezek ez zuen kontrariorik izan



Xabier Urtzelai

*Elena Morenoren eta Iratxe Aranbururen arteko lehiak jarri zion atzoko lasterketari gatza; Kantabriakoa bederatzi segundoko aldearekin helmugaratu zen*

Iaz baino erosoago helmugaratu zen atzo Chema Martinez, errepide bazterrean zeuden ikusleei eskua emanez. Apenas lehiatu zen erlojuaren kontra: hasierako kilometroetan Laurent Galinier frantziarra izan zuen bidelagun, baina gero hura ere ez.

Martinezek ondo zekien aurkari gogor barik gaitza izango zela Alberto Juzdadok 1996an egindako errekorra hobetzea (59:19); Robert Kipchumba zen, aurrez, kontrario gogorrena eta aldi berean baita bidelagun zorrotzena ere. Hala, lasterkari kenyarrak, bisa arazoak tarteko, ezin izan zuen atzoko proban esku hartu eta bertan behera utzi zuen guztiok aurreikusten genuen lehia estua, eta baita lasterketako emozioaren zati handia ere.

Esandako moduan, bada, bakarrik helmugaratu zen Chema Martinez, eta podiuma osatu zuten Hugo Van Den Broek holandarrak eta Guillermo Arnedo Martinezek.

**EMAKUMEETAN, BAI**

Emakumezkoen kategorian ikusi genuen gizonezkoetan izan ez zen zeingehiagoka. Duen ibilbide profesionalagatik Elena Moreno zen faboritoa. Kantabriako korrikalariak, baina, gogotik sufritu zuen Iratxe Aranburu zarauztarraren kontura. Inoiz baino gorputzaldi hobean, azken kilometroetan estutu egin zuen Aranburuk, eta baita Moreno aurreratu ere. Baina Donostiara iristerakoan esfortzu hori ordaindu eta bareak jota iritsi zen joan den urteko txapelduna. Marka pertsonala hainbat segundotan ondu bazuen ere, Aranburu ez zegoen pozik; bigarren izatea atsegin ez duen seinale.

**Ritxar Fernandezek min hartuta egin zituen azken 12 kilometroak**

**ARAZO FISIKOEKIN**

Lehenengo sailkatuak igarota, debagoiendarren txanda iritsi zen. Asko geunden Ritxar Fernandezen zain, joan den urtean bosgarren sailkatuta aurten ere hor inguruan behar zuelako. Eta, gogoan genuen Asier Urdanpilleta ere, ordubete eta lau minutuko marka izanda Oñatikoa ez zelako urrun ibiliko. Eta orduan etorri zen goizeko beste ezusteetako bat: biak hala biak txarto. Zortzigarren kilometro inguruan (Gaintxurizketa gainean) eskuin hankan sastada bat igarri eta ahal zuen moduan bete zituen Ritxar Fernandezek geratzen ziren kilometroak. Hark esandako moduan, birritan geratu behar izan zuen luzatze ariketak egitera. Oñatikoa beldur zen orain dela aste batzuk Berlinen egindako maratoitik ondo errekuperatuko ote zen; bada, ezin jakin hori izan zen arrazoia, baina min hartuta helmugaratu zen.

Asier Urdanpilletak ere aitortu zigun, goizean goizetik igarrita, egun petrala izan behar zuela. Tripetatik txarto, gogotik sufritu zuen: "Lasterketa amaitzearren iritsi naiz azkenera, baina txarto". Hala, Debagoieneko korrikalari azkarrenak bagenituela pentsatuta egin genuen itzulerako bidea, baina orduan etorri zen hirugarren ezustea: Jose Gabriel Urizar presoaren izenean egin zuen Haritz Kortabarria arrasatearrak lasterketa, eta hura izan zen ibarrekoen artean marka onena egin zuena. Eta, ekimen horri jarraituta, aldarrikapenak egiteko eguna ere izan zen atzokoa, Debagoieneko lasterkari askok egin zuten-eta presoen izenean korrika.

Eta minutuak joan eta minutuak etorri, asko etxerako bidean, oraindik helmugara iristeko zeuden beste asko eta asko: 11.739 lagun izan ziren guztira. Eta azken horiena izan zen erlojuaren kontrako benetako proba.

## GIPUZKOAKO LASTERKETA HERRIKOI NAGUSIAK 41 URTE EGIN DITU



Gazteek bakarrik ez, nagusiek ere ondo bete zituzten 21 kilometroak.



Jose Gabriel Urizarren izenean korrika egin zuen Haritz Kortabarria.


30-35 lagun ibili ziren, etengabe, proba amaitutakoan masajeak ematen.



Gurutze Gorrikoak lanean, esku-ohean korrikalaria eramaten.

### Hogeita bat lurraldetako korrikalariak

Atzerritar mordoa izan zen atzoko proban, eta antolatzaileek esan ziguten 21 lurraldetako korrikalariak elkartu zirela atzoko Behobia-Donostian. 11.739 lasterkari atera ziren 11:00etan Behobiatik.

### Euria Behobian, haizea bidean, ateri Donostian

Horrelako eguraldia izan zen atzokoa, ero samarra. Goizeko lehenengo orduetan gogotik bota zuen euria, eta lasterkariek hezetasunari eta haizeari egin behar izan zioten aurre. 15:00etan hasi zen Donostian euria.

### Gurpildun aulkian, Roger Puigbo onena

Korrikalariak baino lehenago iritsi ziren Donostiara gurpildun aulkian lehiatu ziren kirolariak. Hala, Roger Puigbo kataluniarra izan zen azkarrena (52:57), Alexandrino Silva bigarrena (57:18), eta Ali Meliaoui hirugarrena (58:39).

### Errekor bakarra ere ez zuten gainditu

Ez gizonezkoek, ez emakumezkoek eta ezta gurpildun aulkian lehiatu zirenek ere ez zuten lortu probako errekorren bat gainditzea. Egia erdia esan dugu, baina, inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zen-eta.

## • HORRELA IKUSI DUTE PROBA PARTE-HARTZAILEEK



**RITXAR FERNANDEZ** | OÑATI

"Gaintxurizketan min hartu eta justu-justu iritsi naiz. Ez dut babesle berriarekin estreinaldi ona izan, eta barkamena eskatu beharko dut. Dena dela, emango diogu buelta".



**MIKEL ALKORTA** | ARRASATE

"Egia da lasterketa honetan beti sufritzen dela, bakoitzak daukana ematen du-eta. Uste baino minutu bat gehiago egin dut, baina hobeto ibiltzeko esperantza neukan".



**ANDONI AIZPURU** | ELORRIO

"Emazteari esan diot 01:25:00 eta 01:28:00 artean ibiliko nintzela, eta ondo asmatu dut. Eguraldiarekin ere asmatu egin dugu: lainoak, tarteka euria botako zuela... Ondo-ondo".



**MERTXE LARRAÑAGA** | AYUDA EN ACCION

"Lehenengo aldia da Ayuda en Accion-ei laguntzera natorrena, eta oso ondo nabil. Jendea neka-neka badago ere, txipa ekartzera gerturatzen dira. Txip mordoa batu dugu".

**GIPUZKOAKO LASTERKETA HERRIKOI NAGUSIAK 41 URTE EGIN DITU**




Elena Moreno, lehen emakumea, komunikabideekin berbetan.




Chema Martinez jendea agurtzen, Hugo Van Den Broek eta Guillermo Arnedo ondoan dituela, podiumean.

**CHEMA MARTINEZ** | GIZONEZKOETAN LEHENA

## "Neu ere Kipchumbarekin lehiatzeko gogoz geratu naiz"

**Aurreikusi baino zailtasun gutxiagorekin irabazi zuen Chema Martinezek atzoko lasterketa. Bigarren txapela erdietsita, pozik zen madrildarra.**



X.U.

**Gorputzaldi onean zeudela esanda etorri zara Donostiara, eta bete egin dira aurreikuspenak.**

Bai. Ezin izan dut Alberto Juzdadoren marka hautsi, ezta joan den urtean nik egin nuena hobetu ere, baina ez da berekoia izatea komeni. Albertoren errekorra sekulakoa da, eta ni oso gustura geratu naiz egindako lanarekin.

**Robert Kipchumba eta Chema Martinez aurrez aurre ikusteko gogoarekin geratu gara.**

Neuk ere gura nuen lehia hori bizi, bai. Pena izan da, baina bisa arazoengatik-edo Kepchumbak ezin izan du etorri. Gainera, horrelako korrikalari bat ondoan izateak beti derrigortzen zaitu apur bat gehiago ematera. Horregatik ez naiz azkarrago iritsi.

**Zaleak, berriro ere, ikusgarri.**

Sekulako lasterketa da, jendearen animuek benetan bultzatzen gaituzte. Azkeneko kilometroak, benetan, basatiak izan dira. Ez dakit zaleei emandako berotasun dena zelan eskertu.

**IRATXE ARANBURU** | BIGARREN EMAKUMEA

## "Animuen bultzadarekin ere ezin izan dut Elena harrapatu"

**Elena Morenok baino bederatzi segundo gehiago behar izan ditu Iratxe Aranburuk helmuga zeharkatzeko. Hortxe egon da lasterketako lehia politenetakoa.**



JOSETXO ARANTZABAL

**Aurrez ere bagenekien Elenak eta biok lehia estua izango zenutela; azaldu iezaguzu zelako lasterketa izan den.**

Uste baino gertuago izan dut Elena. Nazioartean korrika dabilen atleta da, eta Gaintxurizketan atzean utzi dudanean demasa izan da. Gero, baina, bareak jo nau eta aurreratu egin dit. Metro batzuk atzerago egin ditut azken kilometroak, eta jendearen animuek benetan bultza egin badidate ere, ezin izan dut harrapatu. Leher eginda nengoen, baita psikologikoki ere.

**Lasterketa gogorra izan da?**

Oso gogorra. Behobian euria bota du, eta baita lasterketan zehar ere. Horrekin batera, haizeak ez du batere mesede egin, aurrez aurre jo digu-eta. Horrelakoetan asko sufritzen duen korrikalaria naiz.

**Datozen hilabeteotan, ze asmo?**

Egia da gorputzaldi oso onean nagoela, eta datorren asteburuan bertan hasten da kros denboraldia. Euskadiko txapelketan, eta estatukoan ere egon gura dut. Ea gaurko txaloak gordetzen ditudan.



**ASIER URDANPILLETA** | OÑATI

"Goizean goizetik ikusi dut gaizki ibili behar nintzela, tripetatik txarto nabil-eta. Lehenengo aldia da Behobia-Donostian horrenbeste sufritzen dudala. Ez nengoen nire marka hobetzeko moduan, baina bai hobeto ibiltzeko".



**ALBERTO ALMONACID** | MASAJISTA

"Jendeak izugarri eskertzen du lasterketa amaitutakoan masajea hartzea. Txarrena da korrika eta presaka ibiltzen garela, eta atleta bakoitzarekin denbora gutxi egiten dugula. Hamar bat atleta-edo hartuko du masajista bakoitzak".

**LAN ESKAINTZA**

DCA Company zerbitzu informatikoak eskaintzen dituen enpresak lan poltsa osatzeko honako hau behar du:

**INFORMATIKA TEKNIKARIA**

Esperientzia eta hardwarea konpontzen jakitea kontutan hartuko dira.

Interesatuok bidali kurrikuluma honako helbide honetara azaroaren 15a baino lehen:

**DCA Company**
**Basabe poligonoa C-2**
**20,550 Aretxabaleta**
**E-posta: info@dcacompany.com**

DCA company
Design, Consulting & Computer Assistance

## Pilota

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Debagoieneko pilotariek emaitza onak izan zituzten

*Batzuek galdu eta besteek irabazi arren, maila ona izan zen*


JOSETXO ARANTZABAL
Mutiko guztiek gogoz eman zioten pilotari aste bukaeran.

Asteleheneko Goienkaria

Zapatuan jokatu zuten Debagoieneko pilotariek Gipuzkoako Txapelketako beste jardunaldi bat. Kadete mailan, Aretxabaletako bikoteak 22-6 galdu zuen Alkizakoaren aurka.

Eskoriatzakoei dagokienez, gazte mailan, eskuz banaka, Mendizabalek 22- 4 irabazi zuen Alkizan. Kadeteetan, binaka, Zubizarreta anaiek 22-10 irabazi zuten Alkizan, eta egubakoitzean kadete mailan binaka jokatutako partiduan, Eskoriatzakoek Antzuolakoei 22-20 irabazi zieten.

Bergarako Angiozar auzoan jokatutako sei partiduei dagokienez: infantiletan, Arrasatek Bergararen aurka galdu zuen, 3-18; bikote oñatiarrak 18-4 irabazi zion Eibarri; hirugarren lehia batean, Arrasatek Bergarari irabazi zion, 18-5; Eskoriatza eta Oñatiren artean, berriz, oñatiarrek irabazi zuten, 18-2. Bergarak Zumarragaren aurka 18-15 galdu zuen eta Arrasatek Azkoitiri, berriz, irabazi egin zion, 18-11.

# Ivan Velascok urtebeteko kontratua sinatuko du Euskaltel-Euskadirekin

*Arrasatearrak egubakoitzean jaso zuen Euskaltelen deia*

Mireia Bikuña

Ivan Velascok urtebeteko kontratua sinatuko du Euskaltel-Euskadirekin: "Egubakoitz goizean deitu zidaten eta eguerdian elkartu nintzen haiekin. Duda barik, oso pozik nago", adierazi zigun zapatuan txirrindulari arrasatearrak. Izan ere, denbora luzean berri horren zain egon da.

**URTEBETEKO KONTRATUA SINATUKO DUTE**

Hasiera batean, urtebeterako kontratua sinatuko dute. "Momentuz hitz egin dugu bakarrik. Kontratua asteon sinatuko dugula espero dut". Bada, laster Ivan Velasco Euskaltel taldeko maillotarekin ikusiko dugu.

Velascorekin batera, Ruben Perez, Beñat Albizuri eta Alan Perez dira Euskalteleko txirrindulari berriak.


XABIER URTZELAI
Ivan Velasco arrasatearra.

## Piraguismoa


JOSETXO ARANTZABAL
Zubillagako errekan egin zuten zapatuko topaketa.

# 46 parte-hartzaile aritu ziren piraguismoan

Mireia Bikuña

Zubillagako errekan egin zuten zapatuan Beti Bustik antolatutako piraguismo topaketa. Atletico San Sebastian (Donostia), Santiagotarrak (Irun), Koxtape (Pasaia) eta Beti Bustiko (Bergara) ordezkariek parte hartu zuten zapatuko hitzorduan. Guztira, 46 neska-mutikok jardun zuten.

**BI MODALITATE**

Bi modalitatetan egin zuten zapatuko topaketa: piraguan eta kanoan. Piragua modalitateari K deitzen zaio eta kanoa modalitateari, C. Zubillagako errekan zehaztuta zegoen ibilbidean bi txanda egin zituzten parte-hartzaileek. Eta epaileek denborarik onena hartu zuten kontuan amaierako sailkapena egiteko.

**BESTI BUSTIKO KIDEAK**

Lan ona egin zuten Bergarako Besti Busti taldeko kideek. Hauek izan ziren haien lortutako emaitzarik onenak: K-1 modalitatean, infantil B mailan, Patxi Ugalde izan zen irabazlea; K-1 modalitatean, alebin mailan, Beñat Lizarralde sailkatu zen lehen postuan; C-1 modalitatean, infantil A mailan, Unai Agirrezabalek hirugarren tokia eskuratu zuen.

• **HONELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK**



**AITOR IRIBARREN** | IRUN
"Santiagotarrak taldeko ordezkaria naiz; Irundik gatoz. Lehenengo urtea da piraguismoa egiten dudala. Asko gustatzen zait. K-1 modalitatean parte hartzen dut".



**BEÑAT TEJEDOR** | IRUN
"Nik ere K-1 modalitatean parte hartzen dut. Adinagatik infantil mailakoa naiz, bigarren urtekoa. Piraguismoa egiten dudan lehenengo aldia baldin bada ere, pozik nago".


Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Tellleria 23, D5 pabilioia
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA**
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparpoject.com



• Pirritx eta Porroten "Marimotox" ikuskizun berria Eskoriatzan | 27
• Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketak 1.030 eurko banatuko ditu saritan | 27

Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza liburu baten | 25

**'SEUSSEN MUNDUA' MUSIKALA**



JOSETXO ARANTZABAL

Non oihaneko animaliek Nor planetako txikitxoak babesteko hitza eman zuten.

**ESTREINALDIA BERGARAN** | BI EMANALDIETAN SARRERA GUZTIAK AGORTU ZIREN

# Bergarako pilotalekua jendez lepo bete zen 'Seussen mundua' ikusteko

*Bergarako Orfeoiak joan den Gabonetan estreinatu zuen musikala Bilboko Euskalduna jauregian; zapatuan, herritarren aurrean antzeztu zuten lehenengoz 'Seussen mundua'*

Arantzazu Ezkibel

Bergarako pilotalekua Broadwayko eszenatoki bilakatu zen zapatuan *Seussen mundua* musikala eskaintzeko. Orfeoia, musikariak, dantzariak, abeslariak... Denak prest ziren emanaldiari hasiera emateko. Eta Bergararrek ez zuten hutsik egin: pilotalekua jendez lepo bete zen Nor planeta eta Non oihaneko istorioak ikusteko.

Argiak itzali orduko isildu zen jendea. Denak adi, eszenatokiari begira. Orduan, txisteradun katua agertu zen eta pertsonaia guztien aurkezpena egin zuen. Txisteradun katuak eraman gintuen Nor planetatik oihanera, eta alderantziz. Telebista aurkezleak bezala, GOITBko mikrofonoa eskuan zuela ibili zen.

### ARETOA ATONDU BEHARRA

Musikariak David Azurtzaren gidaritzapean ezin hobetu aritu ziren. Behar bezalako aretoa ez izan arren, gaua girotu eta ikusleak fantasiazko munduan sartzeko gai izan ziren.

Aipatzekoa izan zen Martin Oteitza gazteak egin zuen lana. *Ttipi*-ren papera ezin hobeto bete zuen. *Genghis Khan Shmithz* jeneralari aurre egin zion, txokolatearen meriendaren aldekoak eta txorizoaren zaleen artean borroka piztu nahi zuenean.

Pilotalekuan geunden ikusleek susto ederra hartu genuen *Ttipi*-ren oinetan mina lehertu zenean. Mina, baina, ez zen nahiko izan *Ttipi*-ren ahotsa isilarazteko.

Ikusgarria izan zen *Lutxi*-ren agerpena. Zerutik etorri zen, hegaz, kolore biziko txoria. Emanaldi osoan, beltzez jantzita lanean aritu zirenen laguntza izan zuen *Lutxi*-k. Izan ere, halako muntaiarik ezin liteke egin atzean lanean aritu direnik gabe.

> Musikariak ezin hobetu aritu ziren David Azurtzaren gidaritzapean
>
> Bergararrek Nortarren ahotsa entzuna izatea lortu zuten pilotalekuan

### TXALO ZAPARRADA

Bergarako ikusleek gogotsu parte hartu zuten emanaldian. *Ttipi*-ri kasu eginez, Norko biztanleen ahotsa entzuna izatea lortu zuten bergararrek. "Uste baino erantzun hobea eman dute herritarrek", adierazi zigun Valen Moñux zuzendari artistikoak emanaldi amaieran.

Amaierako txalo zaparrada izugarria izan zen. Ez zen gutxiagorako izan; benetako artisten aurrean izan ginen zapatuan.

'SEUSSEN MUNDUA' MUSIKALA

## • IKUSLEEI ZER IRUDITU ZAIE MUSIKALA?



**ANE ETA ANIK** | ARRASATE

"Lehenengo aldia da horrelako musikal bat ikusten duguna eta asko gustatu zaigu. Gustatuko litzaiguke *Seuss* Arrasatera etortzea".



**IZAR, IRENE ETA IRUNE** | ARRASATE

"Oso gustura egon gara *Seussen mundua* musikala ikusten. Oso polita iruditu zaigu. Lehenengo aldia da Bergarako Orfeoia ikustera etortzen garena, Bilbon ez ginen-eta izan. Gu Arrasatekoak gara; ea gure herrira ere etortzen den musikala".



**MIKEL, IÑIGO, ANDONI ETA MIKEL** | BERGARA

Lagunak abesten ikustera joan ziren lau mutil horiek zapatuan Bergarako pilotalekura: "*Ttipi*-ren papera egiten duena laguna dugu, baita soldaduak ere. Bilboko estreinaldian ere izan ginen eta asko gustatu zaigu musikala Bergarara etortzea".



**NEREA, ALAZNE ETA HAIZEA** | BERGARA

"Asko gustatu zaigu. Animaliak oso politak izan dira eta oso ondo abestu dute. Gehien gustatu zaizkigunak txoria eta elefantea izan dira.", esan ziguten musikala amaitzean Bergarako neskak horiek.



**OLATZ ETA IZASKUN** | BERGARA

"Dena gustatu zaigu, baina pertsonaiaren bat aipatzekotan elefantea eta txoria aipatuko genituzke. Oso ondo abestu dutela iruditu zaigu".



**ARATZ ETA AFRIKA** | BERGARA

"Ikusgarria izan da. Bilbon ere izan ginen, estreinaldian, eta benetan polita iruditu zitzaigun." Aratzi katua gustatu zitzaion gehien.



**JOSE ANTONIO ETA UGAITZ** | AZKOITIA

"Lehenengo aldia da *Seussen mundua* ikusten duguna eta asko gustatu zaigu. Animalia denetatik Ugaitzi oreinak gustatu zaizkio gehien".

# Hauts-izpian barrena

Arantzazu Ezkibel

Benetan hunkigarria izan zen Bergarako Orfeoiak zapatuan egin zuen emanaldia. Broadwaytik Bergarara etorri ziren *Seussen* pertsonaiak, ikusleak konkistatu nahirik, eta esan behar da lortu egin zutela.

**Valen Moñuxek** lan ona egin zuen; ez du samurra izan behar 117 lagun zuzentzeak. Gainera, kontuan hartu behar da ez direla antzezle eta musikari profesionalak. Hala ere, Bergaran aritu zirenek Broadwayko aretoak betetzen dituztenak adinakoak badirela erakutsi zuten.

**Aitzol Muxikak**, *Potol*-ek, eta **Maria Jesus Ugaldek**, *Gertru*-k, ikusleen bihotzak hunkitu zituzten. *Oso-kidetza doktorea*-k, alegia **Patxi Agirrek**, txikienen eta nagusien barreak eragin zituen. *Seussen munduan* ere euskara ikastea beharrezkoa ei da medikua izateko! Lan bikaina Orfeoiak egin zuena **Aitor Biainen** gidaritzapean.

Guztien izenak aipatzea, baina, ezinezkoa da. Horregatik, denak zoriondu gura ditut eta animatu aurrerantzean ere euskaraz lan egiten jarraitzeko.





OMENALDI JAIALDIA | **LA TXUSMA ETA ISKANBILA**

# 3.60 aretoa jendez lepo bete zen zapatuan, 'Txiri', 'Zin' eta 'Xaala' gogoan

*Bi taldeek 90eko hamarkadan jotzeari utzi ziotenetik lehen kontzertua izan zen zapatu gauekoa Arrasaten*

Asteleheneko Goienkaria

Joandako hamarkadan Arrasateko punk-oi! taldearen arrakastaren oihartzuna garbi entzun zen zapatuan 3.60 aretoko omenaldi kontzertuan. La Txusma eta aipatutako Iskanbila taldeek hildako lagunei eskainitako emanaldian, goraino bete zuten aretoa eta gaueko ordu txikiak arte iraun zuen.

*Txiri* Iskanbilako lehen abeslaria izan zenaren eta *Zin* eta *Xaala* koadrilako lagunen omenezko kontzertua izan zen. Gauerdian hasi zen jaialdia; hain zuzen ere, La Txusma heavy taldeak ireki zuen. Diskorik kaleratu ez zuten arren 90eko hamarkadan indar nahikoa hartutako taldea izan zen La Txusma, eta zapatuko gaua aspaldiko partez itzulerakoa izan zen. 3.60 aretora gerturatutakoak, baina, ez ziren heavyzalerik porrokatuenak, eta, harrera ona izan bazuten ere, ikusleek ez zuten erantzun Iskanbilakoei besteko sutsutasunarekin.

> Gaueko ordu txikiak arte iraun zuten emanaldiak zapatu gauean

> Lehen abestia modu akustikoan jo zuten Iskanbilakoek, joandako lagunen omenez

**SARRERA, AKUSTIKOAN**

Lehenik eszenatokira Gotzon, Lapo eta Magu igo ziren, modu akustikoan abesti bat jotzeko. Joandako lagunei eskainitako abestia izan zen. Ostean, egurra ematen hasi ziren. Disko bakarra kaleratu zuten Iskanbilakoek bere garaian, eta kontzertuan, betiko abestiez gain bertsioak ere egin zituzten. Kontzertu luzea izan zen eta laurak arte-edo ez zen inortxo ere mugitu eszenatokitik. Jende ugari batu zuten arrasatearrek, gainera, herrikoak zein kanpokoak eta adin guztietakoak, ez bakarrik jardunean zeudeneko garaietako jarraitzaileak. Gauak denetarik izan zuen, eszenatokira jaurtitako katxi batek eragindako istilu txiki eta guzti, baina horrelako kontzertuetan gertatu ez ohi den ezer ez. Berriz ere elkarrekin jotzen musikariek gustura jardun zuten, eta ikusleak ere ondo ibili ziren zapatu gaueko kontzertu berezian.

# Soldadutzaren gaineko parodiarekin gustura egin zuten barre ikusleek

*Txalo taldeak 'Erreleboa' antzezlana egin zuen egubakoitzean Elgetako Espaloia kafe antzokian*

M.B.

Txalo antzerki taldearen *Erreleboa* lana ikustera jende nahikotxo hurbildu zen egubakoitzean Elgetako Espaloira. Gainera, doan izan zen emanaldia, Udalak antolatuta, Kutxaren laguntzarekin.

Azpeitiko Antzerki Topaketetan antzezlan onenaren saria irabazitakoa da *Erreleboa*, eta hori izan zen taula gainean jardun zuten Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreei –biak hala biak *Goenkale* telesaiotik ezagunak: Tomas postaria eta Tximista tabernaria– eta Begoña Bilbao zuzendariaren lanari esker.

**NORK EZ DITU SOLDADUTZA GARAIKO LAGUNAK GOGOAN?**

Soldadutzaren gaineko parodiarekin gustura egin zuten barre Espaloira gerturatutakoek. Soldadutza Algecirasen egitea egokitu zaien bi euskaldunek elkar ezagutuko dute gau baten: bata soldadutza amaitzekotan da eta badu zer kontatu eta badaki ze gomendio eman hasiberria den besteari. Horixe abiapuntua, eta hortik aurrera, herriminaz, adiskidetasunaz eta beste zenbait balioz jardun zuten bi protagonistek Espaloian, betiere umore puntua galdu gabe.

Taula gainean garita, ilargia eta adreiluzko murru bat baino ez zeuden, baina espazioa betetzen ondo jakin zuten bi aktoreek euren solasaldiarekin. Hala, emanaldiaren amaieran seguruenez soldadutzaren absurdua etorriko zitzaion burura ikusle bati baino gehiagori.

> Azpeitiko Antzerki Topaketetan antzezlan onenaren saria irabazi zuen

> Soldadutzan elkar ezagutU duten bi euskaldun dira Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreak



JOSETXO ARANTZABAL

Aktoreak dira soldadutza Algecirasen egitea egokitu zaien bi euskaldun.



ARGAZKI LEHIAKETA | **52 LAN JASO DITUZTE ANTZUOLAKO UDALEAN**

# Eneko Muxika, Carlos Angeles eta Josune Peñagarikanorenak onenak

*Paperezko argazki onena epaimahai profesionalak erabaki du eta lan digitalik onena herritarrek bozkatu ahal izan dute*

Asteleheneko Goienkaria

Antzuolako Udalak antolatuta, atzo arratsaldean egin zen argazkilaritza lehiaketako sari banaketa.

Txikienek, 14 urtetik beherakoek, zortzi lan aurkeztu dituzte eta guztiek jaso zuten atzo oroigarria. 15 eta 25 urte bitartekoek osatzen duten mailan, Eneko Muxika Garitanoren *Itzalak* lana izan da saritua aurkeztutako zortzi lanen artetik. 150 euroko saria eroan du etxera Muxikak. 26 urtetik gorakoetan (zazpi lan aurkeztu dituzte maila horretan), Carlos Angelesen *Leihotik begira* argazkia aukeratu du epaimahaiak. Hark ere 150 euroko saria jaso du.



JOSETXO ARANTZABAL

Atzo ilunkaran banatu zituzten sariak Antzuolako udaletxean.

**ARGAZKI DIGITALAK**

Hirugarren saria argazki digitalen artean eman dute. Aurten 32 lan digital aurkeztu dituzte eta urterik urte gero eta argazki digital gehiago aurkezten dabiltzala esan du Udalak. Horregatik, datorren urteei begira oinarria aldatzea aztertzen dabiltzala azaldu dute. Hala ere, aurtengo edizioan *Mont Blanc* lana izan da saritua. Josune Peñagarikanok atera zuen argazki hori eta maila horretan saria 100 euro izan da. Guztira, bai digitalean zein paperean, 52 argazki aurkeztu dituzte Antzuolako lehiaketara.



MUSIKA | **UFO TALDEA JAM ARETOAN**

UFO talde ezagunak diskoa aurkeztu zuen egubakoitzean Bergarako Jam aretoan batutako entzule guztien aurrean. *The monkey puzzle* du izena talde horren azkeneko lanak eta irailean kaleratu zuten. Bestelako berrikuntzarik ere erakutsi zuten Bergarako emanaldian: hain justu ere, Andy Parker hasierako bateria-jotzailea taldera itzuli da. | A.G.

# 'Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza' liburua kaleratu dute

A.G.

San Martinetako egitarauaren barruan, *Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza* liburua aurkeztu zuten zapatuan Zegaman. Maixabel eta Lierni Elortza ahizpa segurarrek eta Juan Mari Apaolatzak egin dute, Zegamako Udalak sortutako Xabier Azurmendi ikerketa bekaren bidez. Liburuak bi atal ditu: lehenengoak artzaintzaren ikuspegi etnografikoa lantzen du, eta Elortza ahizpek egin dute; bigarrena Apaolatzak egin du eta artzaintzaren alde teknikoagoa jasotzen du.

Era askotako informazioa du liburuak: txabolak, ardi latxaren ezaugarriak, artzain txakurra, emakumeen garrantzia eta artzaintzarekin lotutako lanbide batzuk. Informazioa batu eta osatzeko, Urbian eta Oltzan txabola duten hamabi artzainekin jardun dute egileek, eta, bitxikeria gisa, artzainen ohitura zaharretakoa ere jasotzen du liburuak: Arantzazuko Ama Birjinari arkumea eramaten ziotenekoa. Nikolas Segurola Arantzazuko artzain frantziskotarra ere izan zen aurkezpenean, eta halako liburuen garrantzia azpimarratu zuen.

## Danbaka

### Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: *danbaka* [laga tartea] *taldearen izena* eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZa. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | **DRAKES** | OÑATI | Botoen **%23,30** |
| 2 | **KLAKSON** | ANTZUOLA-ZUMARRAGA | Botoen **%17,96** |
| 3 | **ABY-KEM** | BERGARA | Botoen **%11,37** |
| 4 | **SCAM** | ARETXABALETA | Botoen **%8,35** |
| 5 | **UNNËA** | OÑATI | Botoen **%7,87** |
| 6 | **THE 5 TWISTERS** | ARRASATE | Botoen **%6,90** |
| 7 | **RAUL LASA** | ARRASATE | Botoen **%4,75** |
| 8 | **ANAL BAG** | ARRASATE | Botoen **%4,64** |
| 9 | **BELCEBLUES** | BERGARA | Botoen **%3,08** |
| 10 | **OZEN** | ARRASATE | Botoen **%3,05** |
| 11 | **MALENKONIA** | OÑATI | Botoen **%2,46** |
| 12 | **LITTLE, LITTLE, MUCH** | ARRASATE | Botoen **%1,97** |
| 13 | **YOTOX** | BERGARA | Botoen **%1,66** |
| 14 | **MATX** | ELGETA | Botoen **%1,21** |
| 15 | **AZKAITER PELOX** | BERGARA | Botoen **%0, 52** |
| 16 | **LOS CRETINOS** | ARRASATE | Botoen **%0, 41** |
| 17 | **IGOR** | ARETXABALETA | Botoen **%0,17** |
| 18 | **JIM TNT & AMAIA** | ARRASATE | Botoen **%0,13** |
| 19 | **MAHASTER RIVER** | BERGARA | Botoen **%0,10** |
| 20 | **INALECTRIK** | ARETXABALETA | Botoen **%0** |

DANBAKA



Eguenean aurkeztuko du *Berria-k* estilo liburu berria. Bilbon aurkeztuko dute, Euskaltzaindiaren egoitzan, baina liburua izango denaren aurrerapena jasotzeko aukera izan genuen eguenean, Eskoriatzako HUHEZIn. Han izan ziren liburuaren egileetako bi, Beatriz Zabalondo eta Irene Arrarats. Azken horrekin estilo liburuaren helburuekin eta *Euskaldunon Egunkaria-k* egin zituen hiru liburuekin alderatuz gero berriak dakartzan berrikuntzez jardun dugu.

**IRENE ARRARATS** | 'BERRIA'-KO EUSKARA TALDEKO ARDURADUNA

# "Irakurleari errealitatea interpretatzeko gakoak eman behar zaizkio gaur egun"

Monika Belastegi



JOSETXO ARANTZZABAL

Irene Arrarats HUHEZIn egindako aurkezpenean.

**Zer da eta zertarako balio du estilo liburu batek?**

Estilo liburu mota asko dago eta gure inguruko gehienek elkarren antz handia dute. Baina badira eredu gehiago: anglosaxoiek, esaterako, dezente diferenteak izaten dira. Guk, hori guztia ikusita eta gure egunerokoak erakusten dizkigun premiak, zalantzak beharrak... kontuan hartuta, estilo liburua izena merezi duen estilo liburua egin nahi izan dugu. Batzuk hitz zerrenda soilak izaten dira. Oso ondo etortzen dira zenbait duda jakin argitzeko, baina guk osatu egin nahi izan dugu. Estiloa ezin da izan bakarrik kontu ortografikoa, askoz gehiago da.

Hortaz, zerbait aberatsagoa egin nahi izan dugu, hiru arlori begiratuta: bata, *Berria* komunikabide den aldetik, zabaltzen ari den mundu ikuskera; bestetik, kazetaritzari heltzeko modua; eta, bestetik, idazkuntza oro har.

**Noiz hasi zineten prestatzen?**

*Berria* sortu zenetik ari gara. Saiatu gara oso lan praktikoa egiten, gure on-gaitzak aztertu ditugu, eta horri begiratuta egin dugu: eguneroko akats, zalantzak... apuntatu eta horiei irtenbidea emanda. Dena den, buru-belarri 2005ean jarri ginen.

**Duela 13 urte kaleratu zuen *Euskaldunon Egunkaria-k* lehen estilo liburua. Horren ondotik beste bi etorri ziren, eta orain, *Berria-k* lehenengoa kaleratuko du. Hori zer da, hizkuntza zerbait bizia dela eta horren isla?**

Bai. Hizkuntza hilak bakarrik daude geldi. Hizkuntza mugitzen den heinean bizirik dagoen seinale da. Hori munduko hizkuntza guztiei gertatzen zaie.

**Baina 13 urte ez dira asko eta estilo liburuak lau, dagoeneko.**

Kontuan hartu behar da, berdin dit gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez... den, erritmoa askoz motelagoa dela. Gurean, beharbada, dudak gehiago izaten dira gure egoera soziolinguistikoarengatik, baina kontuan hartzen baditugu beste hizkuntzetako estilo liburuak, konturatuko gara egunero-egunero ateratzen direla gauza berriak. Adibidez: gaur egun guztion ahotan dagoen gai bat *bullying*-a da. Ez dakit noiz entzun genuen lehengo aldiz, baina ez da oso aspaldi. Hala, seguru nago batek baino gehiagok duen zalantza dela hitz hori nola idatzi behar den. Etengabe ateratzen dira eta aldatzen dira gauzak hizkuntzan, eta komunikabideetan are gehiago; mundua aldatzen den erritmoan aldatzen da hizkuntza arlo lexikoari begiratuta. Sintaxia askoz ere iraunkorragoa da.

**Eta komeni, sintaxia iraunkorragoa izatea.**

Noski. Edozein hizkuntzak bere izaerari eutsiko badio, ezinbestekoa du gutxienez joskeran gauzak ez aldatzea egun batetik bestera, edozein modutan. Hala gertatzen baldin bada, seinale txarra: hizkuntza gutxitua, indar txikikoa eta beste hizkuntza baten interferentziarengatik etengabe aldatzen ari den seinale. Eta hori ez da oso komenigarria izaten.

**Estilo liburu berri horrek zein ekarpen egiten ditu aurreko hirurekin alderatuta?**

Lehen esan bezala, hiru arlotan banatu dugu. Mundu ikuskerari dagokionez, ahalegin txiki bat egin dugu gaur egungo gaietara eta gizartearen errealitatera egokitzeko. Esaterako, deontologia izeneko atalean jorratu ditugu hainbat gai *Euskaldunon Egunkaria*ren estilo liburuetan ukitu ez zirenak: sexismoa, immigrazioa... Halako gaiak nola landu behar diren jaso dugu. Eguneroko lanean agertzen zaizkigun gaiak dira, egunero tratatu beharrekoak, eta modu batera edo bestera egin, ezberdintasun handia dago.

Bigarren arloan, kazetaritzari heltzeko moduei dagokienez, saiatu gara azpimarratzen gaur egungo prentsa idatziak ezin duela jarraitu Internet, telebista eta irratia existitzen ez ziren garaietan bezala. Prentsa idatziak modu erakargarriagoak behar ditu. Bestela, Internetek, telebistak edo irratiak ematen duten berehalakotasun horren aurrean ezingo dio te egunkariek ezer berririk eskaini irakurleari. Izan ere, irakurleak bezperan entzun du albistea irratian, telebistan... Hala, egunkarien erronka da, kazetaritza aldetik begiratuta, irakurleari beste zerbait ematea: gaur egun irakurleari errealitatea interpretatzeko gakoak eman behar zaizkio.

Hirugarrena, idazkuntzari dagokiona, euskal komunikabideetan dihardugunon kontua da. Argi dago gramatikalki ondo dagoena ez dela nahikoa. Hori gutxienekoa da, ezin gara oraindik halako kontuekin ibili. Egin behar duguna da irakurlea erakarri, eta erakartzeko, kontakizunean beste modu batzuk landu behar dira eta alderdi hori asko zaindu; estilistika, fraseologia... Hitz potoloak dira, baina oso gauza praktikoak, aldi berean. Alde horretatik, idazkera bizia eta idazkera bizigarria landu nahi izan dugu, erakargarri gerta dadin irakurlearendako.

**Eta eragin handia dute irakurleengan kazetariok erabiltzen ditugun hizkuntza ereduek?**

Izugarria. Esaterako, telebistan hasten bada norbait gauzak modu batera esaten, esapide hori berehala da kalean. Eta hori euskaldunoi bider ez dakit zenbat gertatzen zaigu. Zergatik? Bada, badakigu gure egoera soziolinguistikoa nolakoa den. Ematen du beti negarrez gabiltzala, baina, bestalde, errealitateari ezin dizkiogu begiak itxi. Hala, jende askok ez du segurantzarik bere euskararekin. Hortaz, pentsatzen du komunikabideetako hori hobea dela. Horrek sortzen du sekulako nahasmena, baita euskaldun peto-en artean ere. Eta hori penagarria da. Kazetarien lanabesa hizkuntza da eta lanabes hori zorrotz eduki behar da. Ezin zaio jendeari edozer gauza eman. Berea baino txarragoa ez den zerbait eman behar zaio, behintzat.

**Hori horrela, estilo liburu bat egitean zer da hartu behar da kontuan ezinbestean?**

Irakurlea. Hori gure kasuan, idatzizko komunikabidea garelako. Uste dut lanera joaten garenean jarri beharko genukeela mahai gainean irakurle anonimo baten argazkia eta pentsatu harendako ari garela idazten.

**Euskal prosa guztiz egin gabe daukagu?**

Egina dago, baina euskaldunoi ahaztu egin zaigu. Tradizioari erreparatzea besterik ez dago, eta hori esatean ez naiz bakarrik Axularrez ari, baita Txirritaz ere. Egun, baliabideak falta zaizkigu batzuetan, gauzak behar bezain garbi eta bizi adierazteko. Hori da gure okerra. Dena den, asko aurreratu dugu eta egunero aurreratzen ari gara. *Euskaldunon Egunkaria*rekin hasi ginenean gauza asko zen dudazkoa. Politika gaietan, esaterako, zuzenbidezko termino asko erabiltzen dira, eta termino bakoitza duda bat zen. Gaur egun, halako gauzak dezente finkatuz doaz. Komunikabideekin batera hiztegiek, entziklopediek... aurrera egin dute. Prosa egiteko orduan, edo joskeran ere asko aurreratu dugu. *Euskaldunon Egunkaria*ren hasieran oso zurrun idazten genuen, eta ordutik gaurko *Berria*rako bidean uste dut prosa aldetik asko aurreratu dugula. Ez gara ari hain zurrun eta horrek esan nahi du gure buruarekin seguruago gaudela eta libreago sentitzen garela beste bide batzuk lantzeko.

> "Egoera soziolinguistikoa dela eta, gurean dudak gehiago izaten dira"

> "Saiatu gara gaur egungo gaietara eta gizartearen errealitatera egokitzen"

> "Ikus-entzunezko medioen aurrean, idatzizkoak modu ekargarriagoak behar ditu"

# Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketak 1.030 euro banatuko ditu saritan

*Hamabosgarren urtez antolatu du Jardunek sariketa hori eta bosgarren urtez, berriz, telefonozko testu-mezuena*

Leire Kortabarria

Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketak 15. aldia du aurten, eta deialdia egin berri du antolatzaileak, Bergarako Jardun euskara elkarteak. Bestetik, bosgarren urtez, SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa ere deitu dute.

Aurten, guztira 1.030 euro dituzte saritan banatzeko. Bost sari ipini dituzte.

**OINARRIAK**

Lehiaketan, 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake amodiozko gutuna bidalita. Lanek jatorrizkoak, inoiz argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. DIN A-4 orrietan idatzita, gutunek ezin dute bi orri baino gehiago hartu.

Jatorrizko gutuna eta hiru kopia aurkeztu behar dira honako helbidera: Amodiozko gutunen XV. Berrigara lehiaketa; Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g; 20570 Bergara. Lelo sistema bidez aurkeztu behar dira. Posta elektronikoz ere bidal daiteke, honako helbidera: *kulturajardun@topagunea.com*. Lanak jasotzeko azken eguna urtarrilaren 7a izango da.

Honako sariak daude: 450 eta 240 euro lehenengo eta bigarren onenari; 150 euro bergarar onenari; eta 26 urte azpiko onenari, 100 euro –irakurle gazteek emango dute sari hori.

**MEZU LABURRAK**

Telefonozko maitasunezko testu-mezuen lehiaketan parte hartzeko oinarriak hauek dira: norberak mezu bakarra bidal dezake, eta adina jarri mezuaren ondoren; urtarrilaren 1etik 15era bakarrik bidal daitezke mezuak, 605 71 24 69 telefonora edo aipatutako e-postara; eta 90 euroko saria dago.

## Labur

### 'Interrup-tour' musika eta antzerki emanaldia izango da Antzuolan

Interruptus taldeak *Interrup-tour* emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, azaroak 17. Musika eta antzezpena bateratzen ditu, eta Antzuolako gaztetxearen behin-behineko lokalean izango da emanaldia, 23:00etan. Antzuolako Gazte Batzarrak antolatu du. Sarrera 3 euro da.

Gitarra joaz, kantu ezagunak abesten ditu gazte batek, eta, kantu eta kantu artean, bere kontzientzia gorpuztu egiten da, beste aktore batek antzeztuta.

### Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko kartel lehiaketa Bergaran

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko nazioarteko eguna da azaroaren 25a, eta horren inguruko kartel lehiaketa deitu dute Bergarako Udalak, Emakundek eta Bergarako Beke emakumeen elkarteak.

15 urtetik gorakoek parte har dezakete, 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian aurkeztutako kartelekin. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* testua eraman behar dute. Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira, azaroaren 20an berandu jota.

### Leavitt eta Austerren liburuez berriketa egingo dute Arrasaten

Arrasateko Udal Liburutegiak antolatutako literatura solasaldietako azaroko lehen jardunaldia etzi, eguaztena, izango da. Egun horretan, espainoleko taldeak David Leavitt-en *El cuerpo de Jonah Boyd* eleberriaz berriketa egingo du 18:30ean. AEBetako familia-bizitza tipikoaren gaineko gogoeta egiten du, senar-emazte batzuen eta senarraren idazkariaren arteko harremana erabiliaz.

Azaroaren 28an, euskarazko taldeak Paul Austerren *Brooklyngo erokeriak* liburuaz berriketaldia egingo du.

## Hitzorduak



**PIRRITX ETA PORROTXEN 'MARIMOTOTX' IKUSKIZUN BERRIA ESKORIATZAN |** Ikuskizun horren estreinaldia egingo dute azaroaren 25ean, eta sarrerak salgai daude

Pirritx eta Porrotx pailazoak gertu daude euren ikuskizun berria estreinatzeko. Eta, ohi duten moduan, estreinaldi hori Eskoriatzan egingo dute. *Mari Motots* du izena ikuskizun berriak, eta azaroaren 25ean izango da. 1.000 sarrera ipini dituzte salmentan honako lekuetan: Elkar dendan, Arrasaten; Aretxabaletako kioskoan; eta Eskoriatzako Dorleta paper-dendan eta kiroldegian. 5 euro da.

Horrez gain, Pirritx eta Porrotxen lagunek argitalpen berriak erosteko aukera izango dute: *Nerearen argazki-albuma* delako ipuina eta *Mari Motots* CD berria aurkeztuko dituzte bihar, martitzena.

**ZINEMA |**

**• *Salvador* filma emango dute Oñatin eta Arrasaten**
Film hori ikusteko aukera izango da gaur, astelehena, Oñatiko kultura etxean, 19:30ean, eta Arrasateko Amaia antzokian eguenean, hilak 16, 20:30ean.

**• *World Trade Center* filma emango dute Arrasaten**
Film hori emango dute gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean.

**• *Laberinto de pasiones* filma emango dute Elgetan**
Film hori emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean.

**• *Buenas noches y buena suerte* filma Oñatin**
Eguenean, azaroak 16, emango dute film hori zineklub emanaldian, kultura etxean, 20:00etan.

**ERAKUSKETAK |**

**• Idoia Azkarate bergararrak erakusketa dauka Donostian**
Idoia Azkarate margolari bergararrak erakusketa dauka Donostiako Kursaal kafetegian. Azaroaren 30era arte dago zabalik.

**• Autobidearen eragina salatzeko erakusketa**
Autobideko lanen eraginen gaineko argazki erakusketa dago Eskoriatzan, *Txikiziorik ez* izenburuarekin. Inkernu tabernan izango da ikusteko aukera azaro osoan.

**• Lurrik Gabeko Nekazarien mugimendua, erakusketan**
Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien mugimenduaren gaineko erakusketa antolatu du Eskoriatzan Aitzorrotz kultura taldeak. Azaroaren 29ra arte dago zabalik kultura etxean.

**• Iñigo Arregi arrasatearrak eskultura erakusketa dauka**
Iñigo Arregi artista arrasatearrak altzairuzko 14 eskultura-lan ipini ditu erakusketan Gasteizko Felisa Navarro erakusketa aretoan. Eskulturak bakarrik erakusten dituen lehen aldia da. Cercas Bajas kaleko 2. zenbakian dago areto hori.

**• Jon Fernandez de Arroiabe elorriarraren margolanak**
Margolan erakusketa dauka Jon Fernandez de Arroiabek Arrasateko Harresi aretoan, honako bisita ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00. Hilaren 26ra arte dago zabalik erakusketa.

**• Miguel Okinaren atzera begirako erakusketa**
Miguel Okina margolari bergararrak *Bizitza bat margoari eskainia* izeneko artelanen erakusketa dauka Aroztegi aretoan. Hauxe da bisita ordutegia: martitzenetik eguba-koitzera, 18:00-20:30, zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeketan, 12:00-14:00. Erakusketa zabalik dago azaroaren 26ra bitartean.

**IKUSKIZUNAK |**

**• Gabonetako marrazki lehiaketa bi herritan**
*Los sin tierra* bideoa emango dute etzi, eguaztena, Inkernu tabernan. Aitzorrotz kultura taldeak antolatzen du emanaldia.

**LEHIAKETAK |**

**• Gabonetako marrazki lehiaketa bi herritan**
Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako 6-12 urte bitarteko umeek Gabonetako marrazki lehiaketan parte har dezakete. Norberak marrazki bakarra aurkez dezake, ludotekan edo liburutegian. Maila bakoitzekoen artean sari bat zozketatuko dute.

**• Orhan Pamuk turkiarraren nobela bat itzultzeko beka**
Orhan Pamuk aurtengo Literaturako Nobel saridunarenaren *Kar* nobela euskarara itzultzeko Jokin Zaitegi beka deitu dute AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu liburua itzultzeko. Parte hartzeko, lehen atala itzuli behar da. Honako webgunean dago: *www.elkarlanean.com/jokinzaitegi*.

## Eguraldia



| Astelehena, 13 | Martitzena, 14 | Eguaztena, 15 | Eguena, 16 | Egubakoitza, 17 |
|---|---|---|---|---|

### Itxuroso hasi eta itxuroso bukatuko dugu azaroko hirugarren astea

Atzoko hodei hondarrak izango dira zeruan lehenengo orduetan, baina goizak aurrera egin ahala, desagertzen joango dira eta arratsalde nahiko eguzkitsua geratuko da. Giroa goxatu egingo da eta tenperatura maximoa 20 gradura hurbilduko da. Bihar ere eguraldi goxoa izango dugu. Goizean behe-lainoa sartuko da, baina jaso, eta giro eguzkitsua izango dugu. Tenperaturak gora egingo du eta 20 graduren bueltan ibiliko gara. Eguazten eta eguenean ere behe-lainoa izango dugu goiz partean eta arratsaldea ere lainotsua izango da. Tenperatura berdintsu mantenduko da. Barikua eguzkitsuagoa izango da.

## Guardiako farmaziak

| ARRASATE | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Azkoaga | Ferrerias 1 (943 79 15 15) |
| **Martitzena, 14** | Azkoaga | Iturriotz 17 (943 79 79 99) |
| **Eguaztena, 15** | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 (943 79 22 26) |
| **Eguena, 16** | Irizar | Erguin 11 (943 79 12 39) |
| **Egubakoitza, 17** | Amezua | Santa Marina 32 (943 79 09 74) |

| BERGARA | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Urrutukoetxea | Oxoirondo 4 (943 76 11 74) |
| **Martitzena, 14** | Zabala | Barrenkalea 25 (943 76 16 87) |
| **Eguaztena, 15** | Guallar | San Antonio 5 (943 76 11 05) |
| **Eguena, 16** | Estella | Matxiategi 5 (943 76 19 63) |
| **Egubakoitza, 17** | Mozos | Iparragirre 2 (943 76 12 15) |

| OÑATI | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Anduaga | San Lorentzo 3 (943 78 21 16) |
| **Martitzena, 14** | Anduaga | San Lorentzo 3 (943 78 21 16) |
| **Eguaztena, 15** | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 (943 78 01 22) |
| **Eguena, 16** | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 (943 78 01 22) |
| **Egubakoitza, 17** | Garate | Kale Barria 42 (943 78 05 58) |

| ARETXABALETA | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Fraile | Herriko Plaza 10 (943 79 21 99) |
| **Martitzena, 14** | Fraile | Herriko Plaza 10 (943 79 21 99) |
| **Eguaztena, 15** | Fraile | Herriko Plaza 10 (943 79 21 99) |
| **Eguena, 16** | Fraile | Herriko Plaza 10 (943 79 21 99) |
| **Egubakoitza, 17** | Fraile | Herriko Plaza 10 (943 79 21 99) |

## Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA (Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 902 54 32 10 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Antzuola | 943 76 61 81 |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 77 12 64 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 902 24 02 02 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 15 12 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 71 21 17 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Idolaz / Antzuola | 943 78 70 56 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Txirritola / Aram. | 945 44 52 66 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 943 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## Zozketak

**BONOLOTOA**

Astelehena, 6
**3 • 5 • 10 • 17 • 24 • 45**
Osagarria: 39 | Itzulketa: 1

Martitzena, 7
**5 • 10 • 12 • 16 • 28 • 32**
Osagarria: 43 | Itzulketa: 8

Eguaztena, 8
**4 • 11 • 14 • 23 • 26 • 41**
Osagarria: 46 | Itzulketa: 6

Egubakoitza, 10
**5 • 14 • 22 • 26 • 44 • 48**
Osagarria: 23 | Itzulketa: 4

**ONCE**

| | |
|---|---|
| Astelehena, 6 | **67.168** |
| Martitzena, 7 | **54.290** |
| Eguaztena, 8 | **64.527** |
| Eguena, 9 | **67.018** |
| Egubakoitza, 10 | **81.508** |

Kupoitzarra (003 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 9
**15 • 20 • 28 • 32 • 38 • 41**
Osagarria: 29 | Itzulketa: 7

Zapatua, 11
**1 • 7 • 28 • 33 • 37 • 48**
Osagarria: 47 | Itzulketa: 4

## Gazte zerbitzuak

**BEKAK |**

• **Graduondoko prestakuntza.** Lehendakaritza Ministerioa. Graduondoko prestakuntzak egiteko dirulaguntzak: dokumentazio juridikoa, testu legalak, marketinga, publizitatea, kudeaketa publikoa eta administrazioa. Epea: azaroak 22.

• **Historia.** Goitikoetxea Kultur Elkartea; Euskal Udalekuak. Urdirotzeko udalekuen historia jaso eta argitaratzeko ikerketa beka. Epea: azaroak 30.

• **Euskal Literatura II.** Tene Mujika Beka. Debako Udala-Elkar Argitaletxea. Euskal Herriko historia hurbilari buruz idazteko beka. Epea: azaroak 30.

**LANA |**

• **4.261 Lanpostu.** Osakidetza. Medikuak, logopedak, optikoak, erizainak, fisioterapeutak, emaginak, terapeutak, erizaintzaren laguntzaileak, zaindariak, administrariak, sukaldariak, informatikariak, laborategiko teknikariak, eta abar. Epea: azaroak 13.

• **Gizarte langileak.** Osakidetza. 11 gizarte langile kontratatzeko deialdia. Epea: azaroak 22.

• **Lan poltsa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Errenta Aitormenaren kanpainetarako erdi mailako teknikari laguntzaileak aukeratzeko lan poltsa. Epea: azaroak 27.

**LEHIAKETAK |**

• **Artisautza.** Arabako Foru Aldundia; Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. *Blas Arratibel* 2006 artisautza lehiaketa, artisautza tradizionala eta sorkuntza berria. Epea: azaroak 30.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net




**Antzuola:**
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
**Elgeta:**
•Kioskoa
**Bergara:**
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
**Arrasate:**
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Kurruxko okindegia
**Aretxabaleta:**
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
**Eskoriatza:**
•Dorleta liburudenda
**Leintz Gatzaga:**
•Labidea
**Aramaixo:**
•Plazako kioskoa
**Oñati:**
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE
**Amalur Arizabaleta**
Azaroaren 12an, 3 urte. Zorionak! Aitaita, amama, izeba eta osaba.



ARRASATE
**Nere Zubillaga**
Azaroaren 13an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familiaren partetik.



ARRASATE
**Jone Gorosabel**
Azaroaren 13an, 3 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Aimar Mijangos**
Azaroaren 13an, 5 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
**Kepa Lopez**
Azaroaren 15ean, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Etxekoen partetik.



BERGARA
**Gorka Larrañaga**
Azaroaren 7an, 10 urte. Zorionak! Etxekoak eta Martokoko lagunak.



BERGARA
**Itsaso Gantxegi**
Azaroaren 7an, 9 urte. Zorionak! Lagunak; bereziki Jon.



BERGARA
**Unai Zubizarreta**
Azaroaren 11n, 8 urte. Zorrionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
**Paul Roman**
Azaroaren 5ean, 6 urte. Urte askotarako! Araceli eta familiakoak.



OÑATI
**Jokin Zubillaga**
Azaroaren 16an, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Etxekoen partetik.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Jaiotakoak



**Josu Orobengoa Vitoria**
Arrasate • 3,560 kg. Azaroaren 3an. Gurasoak: Sara (Arrasate) eta Andoni (Garagartza). Argazkian umea kuman.



**Endika Romero Berrocal**
Aretxabaleta • 2,600 kg. Azaroaren 8a. Gurasoak: Asun (Aretxabaleta) eta Enrique (Aretxabaleta). Argazkian gurasoekin.



**Ekain Legazpia Molina**
Bergara • 2,500 kg. Azaroaren 8a. Gurasoak: Maria Jose (Bergara) eta Iñaki (Bergara). Argazkian haurra kuman.



**Mikel Serrano Gonzalez**
Bergara • 2,700 kg. Azaroaren 9a. Gurasoak: Raquel (Bergara) eta Andres (Bergara). Argazkian amama Txarorekin.



**Lander Garitano Arribas**
Bergara • 3,150 kg. Azaroaren 11. Gurasoak: Ramona (Bergara) eta Mikel (Bergara). Umea kuman lo.



**Ane Miren Arroyo Prieto**
Oñati • 3,750 kg. Azaroaren 11. Gurasoak: Maria Jesus (Oñati) eta Joaquin (Oñati). Argazkian aitarekin.



**Iraide Loiti Palacios**
Oñati • 2,860 kg. Azaroaren 11. Gurasoak: Josune (Oñati) eta Aritz (Oñati). Argazkian gurasoekin.

## Hildakoak

**Jose Antonio Perez Perez**
Eskoriatzan, azaroaren 7an. 34 urte.

**Miren Pilare Mujika Urkizu**
Bergaran, azaroaren 11n. 83 urte.

**Juana Mendo Rodriguez**
Aretxabaletan, azaroaren 11n. 77 urte.


**Zoriondu ARRASATE IRRATIAn**



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAk** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**
*irratia@goiena.com* helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero, zorion agurren tartea ARRASATE IRRATIAn

FM107.7
ARRASATE IRRATIA


# SAHARA ASTEA OÑATIN
## AZAROAREN 13tik 17ra



**ARGAZKI ERAKUSKETA:**
Saharako kanpamentuetara bidaia
Azaroaren 13tik 17ra kultura etxean
18:30etik 20:30era

**BIDEO EMANALDIA:**
*Fatimetu*
Azaroaren 14an
Kultura etxean 19:00etan

**HITZALDIA:**
*Sahara atzo, gaur eta bihar*
Hizlariak:
Brahim, Euskal Herriko Fronte Polisarioko delegatua.
Dee-Dy Mohamed Salem, Oñatin bizi den sahararra.
Azaroaren 15ean kultura etxean 19:00etan.

**'IKASTOLATIK SAHARARA' FESTA:**
Azaroaren 17an Oñatiko Udaletxe plazan, 17:00etatik 20:00etara AMAIERA FESTA antolatu du Txantxiku Ikastolak.

17:00etan gaztetxoenentzat jolasak: marrazki erraldoia, toka jolasa, aurpegiak margotzeko aukera... eta ARGITXOREN boloa. Nagusiagoentzako pintxoak, gaztaina erreak, ardoa, sagardoa eta freskagarriak ere dastagarri izango dira. Kamisetak eta errifak ere eskuragarri egongo dira denentzat.

18:00ak aldera musika (trikitilariak, txistulariak) eta bertso emanaldia izango dira, zeinetan ikastolako bertako ikasleek eta kanpotik etorriko diren zenbait gonbidatuk parte hartuko d.

19:00etatik aurrera pintxo jana, eta poteoak jarrai dezala! Gainera, Gasteiztik etorriko den saharar talde bati esker tea ere dastatu ahal izango da, plazan bertan, eta baita hennazko tatuajeak egin ere.

**Anima zaitezte eta ez huts egin umore onez eta elkartasunez beteriko jai honetara!**



Ikastolatik Saharara 2006

## Gaur irratian

### Arrasate Irratia

FM 107.7

**'Igo autobusera' | 11:10**

**Beatriz Zabalondo eta Yotox musikaria**

Beatriz Zabalondo *Berria*-ren estilo liburuaren egileetako bat elkarrizketatuko dute gaur, irratiko kideek. Horrekin batera, barikuan Danbaka lehiaketan arituko den Yotox musikaria hobeto ezagutzeko aukera ere eskainiko digute.

### Oñati Irratia

FM 107.4

**'Eguerdiko saioa' | 12:15**

**Pake Lekuk antolatutako ekitaldien berri**

Pake Leku erretiratuen elkarteko kideek kultura egitarau zabala prestatu dute azaroaren 30era bitartean. Horren harira, antolaketa batzordeko Angel Agirre elkarrizketatuko dute gaur, ekitaldien berri jasotzeko.

### Euskadi Irratia

FM 104.4

**'Faktoria' | 11:05**

**Haurrek lotarako izaten dituzten arazoak**

### Radio Euskadi

FM 98.2

**'Boulevard' | 09:30**

**Marixabel Lasa eta Ana Iribar**

### Herri Irratia

FM 99.8

**'Loiolako porrusaldan' | 12:05**

**'Enplegua eta etorkinak' jardunaldiak Eibarren**

## GOITB programazioa

### Astelehena, 13



**Behobia-Donostia lasterketa**
**21:15**
Julen Iriondok aurkezten duen saioan, tarte berezia egingo zaio domekan jokatutako Behobia-Donostia lasterketari: irudiak, iritziak...

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Hitz Bitan.
**14:45** Albisteak.
**15:15** Ilunpean: Martxelo Rubio.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Gatza ta berakatza.
**16:00** MKT.
**16:15** Jazzmina.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Berbaire.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Danbaka.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmailatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea: Arientzako behi baten memoriak.
**22:15** Hasiberriak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu: Marta Bermejo.
**23:45** Gaurkoak.
**23:47** Ikusmira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 14



**Danbaka musika lehiaketa: Belceblues**
**21:47**
Danbaka musika lehiaketa jarraitzeko aukera duzue astero GOITBn: Belceblues taldeak Espaloian egindako emanaldia gaur.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmailatik.
**14:15** Erreportajea: Arientzako behi baten memoriak.
**14:45** Albisteak.
**15:00** Didjeridu: Marta Bermejo.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Hasiberriak.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean: Martxelo Rubio.
**18:15** Gatza ta berakatza.
**18:30** MKT.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Harmailatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Danbaka: Belceblues.
**22:15** 16mm.
**22:45** Berriak.
**23:15** Hitz bitan.
**23:45** Gaurkoak.
**23:47** Harmailatik.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 15



**Idoiaga Oñatiko alkatea, 'Debarri'-n**
**21:15**
Alberto Gorritibereak aurkeztuta, Lourdes Idoiaga izango da gaur *Debarri*-n. Ikusleek parte hartzeko aukera dute *goiena.net* webgunean.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**13:45**Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Danbaka-Belceblues.
**14:45** Albisteak.
**15:15** 16mm.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Hasiberriak.
**16:15** Hitz Bitan.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmailatik.
**18:15** Erreportajea: Arientzako behi baten memoriak.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Danbaka.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Debarri: Oñati.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Debarri: Oñati.
**22:15** Hasiberriak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:47** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 16



**Aby Kem musika talde bergararra**
**21:47**
Danbaka musika lehiaketarekin jarraituz, Aby Kem talde bergararraren emanaldia ikusteko aukera izango da gaur gauean.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Debarri:Oñati.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Teknopolis.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Erreportajea.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa.
**18:15** 16mm.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Gatza ta berakatza.
**19:30** MKT.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Danbaka: Aby-Kem.
**22:15** Didjeridu.
**22:45** Berriak.
**23:15** Erreportajea.
**23:45** Gaurkoak.
**23:47** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 17



**Joxe Felipe Auzmendi 'Ilunpean' saioan**
**20:30**
Joxe Felipe Auzmendi ETBko aurkezle ezaguna elkarrizketatuko du Oihana Elortzak. Besteak beste, bikoizketa lanetan jardundakoa da Auzmendi.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire II.
**14:15** Danbaka: Aby-Kem.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Hitz bitan.
**16:45** Albiste aurrerapena.
**17:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Debarri-Oñati.
**18:15** Debarri-Oñati.
**18:45** Albiste aurrerapena.
**19:15** Erreportajea: Arientzako behi baten memoriak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Mandio.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire II.
**23:45** Gaurkoak.
**23:47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

## Kamera aurrean



**"Elkargiren helburu nagusia zera da: enpresa txiki eta ertainen finantza baldintzak hobetzea"**

**JABIER ALBERDI** |
ELKARGI
**Berriak**, 2006-11-08



**"Onaindia Aita pasa zenean, txunditurik geratu zen Celestino Uriarteren lanarekin. Antolatzaile aparta izan zen"**

**JOXE IRIARTE 'BIKILA'** |
URIARTEREN GAINEKO LIBURUAN PARTAIDE
**Berriak**, 2006-11-09

Erreportajea

**'Arientzako behi baten memoriak'**

Gaur, astelehena, 21:47an



Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

Azaroaren 13a: 107 zozketa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, azaroak 13, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

**Harpidetza kuota:**

**12 euro**
2006 bukaera arte.

ASTELEHENEKO Goienkaria
asteleheneań, aste bukaera osoa

107 zozketa saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Zortzi sarrera azaroaren 17an ELGETAko ESPALOIAn DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)**

- Aitor de Benito (Bergara)
- Elisabeth Altuna Lasa (Arrasate)
- Xabier Ugarte Aiastui (Oñati)
- Amaia Berezibar Gomez (Aretxabaleta

**PAMIELA argitaletxeko liburu sorta bat.**

- Iñaki Altuna Agirrebeña (Aretxabaleta)

## Azaroaren 20ko sariak




- Bi sarrera azaroaren 26an ELGETAko ESPALOIAn izango den *CANTERVILLEKO MAMUA* lan antzerkirako.



Bi sarrera azaroaren 25ean ELGETAKO ESPALOIAn izango den BIDE ERTZEAN taldearen kontzerturako.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate

**Egoitza nagusia:** **Bergara** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • *Posta-e: goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31**
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 *Posta-e: arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila**
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2**
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • *Posta-e: publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** S.S.-0088/04 • **ISSN**: 1697 3542
**HARPIDETZA:** 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*



Goizean: tarteka eguzkia
Arratsaldean: eguzkia

# Hamarrekoa

**MARTXELO RUBIO** | AKTOREA

## "Ondo zaudenean ederra da Madril, baina gaizki zaudenean, gogorra"

Oihana Elortza

**1. Nola heldu zinen *27 ordu* filmeko protagonista izatera?** 20 urte inguru nituen orduan. Eskolako umeak zaintzen nituen diru pixka bat ateratzeko, begirale moduan. Javier Agirresaroberen bi seme zaintzen nituen nik eta hark esan zidan Montxo Armendarizek film bat egiteko asmoa zuela eta ez zuela aktorerik nahi, kaleko jendea baizik. 500 bat lagun joan ginen hotel batera lehen proba egitera, eta ni aukeratu ninduten.

**2. Eta orduan sartu zitzaizun aktore izateko harra?** Bai. Lehenago ez nuen inoiz antzerako ezer egin, ez antzerkirik ez zinemarik. Zuzendaria Armendariz eta gidoigilea Kerexeta izanda, pelikula txukuna atera zen, asko gustatu zitzaidan esperientzia eta bide horretatik jarraitzea erabaki nuen, aktore izatea.

**3. Beste lanbiderik egin duzu inoiz?** Bai. Zerbitzaria izan naiz taberna baten, beste aktore askoren moduan, eta garbiketa enpresa baten ere egin dut lan denbora batez.

**4. Zer iruditu zitzaizun Madril Arte Dramatikoa ikastera joan zinenean?** Izugarria. Ikusten nuen dena irensten nuen. Orain lasaiago ibiltzen naiz, noski. Ondo zaudenean ederra da Madril, baina egoera zailak ere bizi izan ditut han eta hiri gogorra da kasu horietan.

**5. Motorrean joaten zara Madrilera?** Ez, autobusez normalean. Motorra Madrilen dut eta hango inguruetan egiten ditut txangoak udaberri, uda eta udazkenetan.

**6. Punturik kendu dizute azkar joategatik?** Segovian ia kendu zizkidaten okerreko marra zapaltzeagatik, baina oraindik ez.

**7. Estimatzen dituzte Madrilen euskal aktoreak?** Casting zuzendaria izeneko figura bat dago egun, eta hark Madrildik kanpo egiten diren lanak ere ikusten ditu. Hori ona da.

**8. Egia da antiguatarrok beste izaera bat duzuela?** Txikitan erdigunera joaten ginenean, "Donostiara goaz", esaten genuen.

**9. Itsas kirolik egin duzu inoiz?** Hondartzara asko joan izan naiz, baina pilotan, atletismoan eta futbolean jokatu dut txikitan. Pilotan nahiko ona nintzen eta txapelketa batzuk ere irabazi nituen nire kategorian. Orain korrika egiten dut tarteka.

**10. Etortzen zara Oñatira familia bisitatzera?** Lehen askoz gehiago, egia esan.



O.E.

**Donostiako Antigua auzokoa da Martxelo Rubio. 40 urte ditu. Bilbon eta Donostian grabatzen ari diren bi filmetan dihardu orain, eta Euskal Herria eta Madril artean bizi da. Eguzkia gustatzen zaio eta toki lasaiak aukeratzen ditu oporretara joateko; hegazkinak, aldiz, ez ditu maite. Behobia-Donostia lasterketan parte hartzeko asmoa zuen, baina zenbaki barik gelditu da.**



### Biharamuna

Marijo Deogracias

## Memoria eta gogoetak

Badira hile batzuk lanez aldatu nuela, baina gogoan daukat zela Bergarako Orfeoiko **Valen Moñux**ekin egon nintzen Seminarioan, orain dela urtebete, Euskaldunan *Seussen mundua* estreinatu aurreko entseguetan. Asteburu honetan, azkenean, erakutsi dute Bergaran. Ez ordea kultura etxean ze, kontatu didatenez, oraindik ez da udalarena seminarioa. Hurrengo udal hauteskundeen aurretik izango den ere ezin ziurtatu; aldiz, Antzuolako alkate **Jose Angel Zabalo**k izango du Antzuolako kultura etxe edo erabilera anitzeko eraikina Sagastin. Zapatuan handik pasatu nintzen Gorostiko **Mateo** eta Larreako **Jokin** agurtu aurretik. Zulo ederra egiten hasi dira herriko berdegune bakarrean.

*Goienkaria*-n azkenekoz jardun nueneko beste istoriotxo baten azkeneko kapitulu baten berri ere izan dut asteon: **Juan Ramon Garai**k *Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista* liburua aurkeztu duela. Gogoan dut telefonoz kontatu zidala liburua egiteko asmoa zutela eta nik "Asteleheneko Goienkarirako albistetxoa egingo dut" esan nionean, berak esan zidala: "Aizu, neska! Kazetariei ezin zaizue ezer kontatu!". Baina Memoria Historikoaren urtea bizitzen ari ei gara eta horrelakoak gogora ekarri egin behar dira, batez ere, sasoi ilun haiek bizi ez genituenok ezagutu ditzagun eta, ahal dela, orduko akatsak berriz ez errepikatzeko. Horixe da-eta gizakumeon patua: jakin arren, behin eta berriz errepikatzen ditugula akats berberak.





**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

# UGARTE
**AROZTEGIA-ALTZARIAK**

Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak





**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04